


PIARRES LARZABAL

HERRIKO BOZAK **edo NOR ALKATE**



AUSPOA LIBURUTEGIA

HERRIKO BOZAK
edo NOR ALKATE

AUSPOA LIBURUTEGIA

- 21 -

COLECCION AUSPOA

Administración: Plaza de Santa María 2 - Tolosa

Dirección literaria: Rdo. P. Antonio Zavala S. J.

**Colegio de San Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)**

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 200 peseta.

Atzerrian: 275 peseta

Ongilleak: 350 »

Ale bakarra: 25 »

PIARRES LARZABAL

HERRIKO BOZAK
edo NOR ALKATE

Lapurdiko ta Gipuzkoako euskeraz
(Gipuzkoakoa M. Lekuona apaiz jaunak moldatua)

AUSPOA LIBURUTEGIA

DEPÓSITO LEGAL S. S. 733—1962
N.º DE REGISTRO 3846—1962

IMPRESO EN LOS TALLERES TIPOGRAFICOS «ICHAROPENA»
ZARAUZ (GUIPUZCOA-ESPAÑA)

ARKIBIDEA

Orr-
aldia

Aintzin-solasa	8
Jokolariak	10
Lenengo gertaldia	12
Bigarren* gertaldia	68
Irugarren gertaldia	93

AINTZIN-SOLASA

Nere antzerki-gaiak, kasik denak, dira Eskual-Herrian edo bederen Eskualdaunen artean gertatu edo gertatzen diren harat-hunatak.

Antzerki horien mamia, zintzo edo irrigarri, da bethi erakaspén emaile.

Nere erakaspéna da, gutiz gehienetan orai-ko egunari dohakona, Eskualdúngoaren akulatzaile, jende handien harrotzale,...

"Nolako bizi, halako idatzi" da errana... Nik uste, nere biziko borrokak, nere erriaren alderako khar minbera, nere odolezko ethorkizuna, dira nere buru-lanen ithurri eta su-gailu.

Ez ditut maite amets hutsak. Funtsazko ametsetan, biziaz orhatuetan, Jainkoa eta Eliza Ama gidari, deramakát nere artzaingoa.

Horra zer zimenduaren jabe dudán atheratu antzerki berri hau.

Ez uste izan, hunen erakaspéna dela: Bozkatzearen kondénatzea...

Bozkatzea da urhats errespétagarri eta zintzo bat, gizonaren norbaitasuna ohoratzen

duen gizonak, emeki eta nekhez, beretu duen dretxo bat.

Zorigaitzez, dretxo errespetagarri hori ez da bethi errespetuki baliatua, batetik gizon zombaiten malezia gaxtoarengatik, bestetik bozkatzaile hanitzen ahuleziarengatik.

Beharbada zombaiti idurituko zaiote, oraiko jende argitu eta lehunduentzat, antzerki huntako bozkatzaileak ez direla antzeko, baina hirrikillu eta petralegã... Hobe, hobe, eta agian ba!... Baina asko ofiziale "jende biltzalek" diote, jendeen kaskotan zerbait sartu nahi duen idatzlariak, bere lana behar duela muntatu, hamalau urthe inguruko korrontzat balitz bezala... Maila hortarat, jakinduria jauts ditake urtu gabe, eta, jakin gabezia upha ditake, lotsatu gabe.

Dena den, horra zertarik den, zertako eta zertarako, antzerki hau.

Lehen aldikotz, Hazparneko multzoak eman zuen, naski 1956-garren urthean.

P. Larzabal

Jokolariak :

MERA.—65 bat urthe, jitez zalapart eta kezakor.
Monsieur PHILIPÉ.—50 bat urthe, faltsu, aposto-
lu aire.

GREGORIO.—60 bat urthe, bisaia ilhargi.

AROTZA.—Beltzaran, muztatzdun, idor eta bor-
thitz.

KOSE.—60 bat urthe, lunetetan, errement aire.

PAKO.—50 bat urthe, xuhur bezi, zaintsu, mox-
kor bisai.

XIXON.—20 bat urte, zilinga, dena grimas, bi-
tziki bezi.

OSTALERTSA.—45 bat urthe, lerdan eta puxka gi-
zontsa.

BERTA.—25 bat urthe, eder eta maltzur.

JUSTINA.—70 bat urthe, hortzak eskas, bitzi...

DOLOREZ.—50 bat urthe, aire nekatu mokokari
bat.

BERTZE ZONBAIT.—agertzen direnak, mintzatu
gabe edo mintzatzen agertu gabe.

Jokolariak:

ALKATEA.—65 bat urte; zalapartatsu ta aserrekor. Botikario.

JAUN PHELIPE.—50 bat urte, faltsu, predikari-itxura. Ixkribau.

GREGORIO.—60 bat urte, illargi-aurpegi. Errotari.

PERRATZALLEA.—Beltzaran, bigotedun, segail, latz.

JOSE.—60 bat urte, betaurrekun, txaldan-antza. Aguazil.

PAKO.—50 bat urte, jantzi-urri, zaintsu, mozkor-aurpegi. Apaizaren morroi.

XIXON.—20 bat urte, mirritx, beti kiñuka, dotore jantzi. Alkatearen seme.

OSTATU-ANDRE.—45 bat urte, lerden eta gizon-antza.

BERTA.—25 bat urte, eder eta trapika, pertxenta. Perratzallearen alaba.

JUSTINA.—70 bat urte, ortza-bakan, dotore. Erriko kanpai-jotzalle.

DOLOREX.—50 bat urte, aire nekatu, mokokari. Eta betse zenbait, agertzen diranak mintzatu gabe, edo mintzaten agertu gabe.

LEHEN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—Ostatu bat.

OSTALERTSA. (Barnean dabila okupatua.)

KOSE (Atabala joz, kridatzen ari, agertzen da lehioan).—*Jaun meraren partez... Herriko bozak ditugula... (Asto bat entzuten da orroz. Kose kexu) Eyherako asto ustela... Gregorioren asto zikin horri, nik oraino hortzak hautsiko ziozkaiat. Ez baitut boza altxaten ahal, horren errefera entzun gabe.*

OSTALERTSA. — *Dударик gabe, zure bozak, beharriak minberatzen daizko.*

KOSE (Kexu).—*Zu ere, zaude ixilik. (Berritz atabala jo eta) Jaun meraren partez... herriko bozak ditugula... Denek boza eman dezatela, ez baita boza emaile soberakinik... Zaharren eta erien garreatzeko, oto bat izanen dela. (Berritz astoa entzuten da) Asto madarikatua... Nik hiri oraino makhil ukhaldika, bizkar hezurra hautsiko daiat. (Ostalertsari) Ekazu edaterat hunerat.*

OSTALERTSA.—*Zuritik edo gorritik?*

LENENGO GERTALDIA

JOKA-LEKU.—*Ostatu bat.*

OSTATU-ANDREA.—(*Barruan dabil, lanpetua.*)

JOSE.—(*Danborra joaz, oyuka agertzen da leyoan.*)—Alkate Jaunaren ordena da... Erriko botuak ditugula... (*Asto baten arrantza entzun bedi. Jose aserre:*) Errotako asto ustela!... Gregorio'ren asto zikin orri, oraindik nik autsiko zizkioat ortzak. Ez bait-dezaket itzik argitu, orren errestarik entzun gabe.

OSTATU-ANDREA.—Dударik gabe, zure miztuak belarriak minberatzen dizkio.

JOSE. (*Aserre.*)—Zu ere zaude ixillik. (*Berriro danborra joaz*) Alkate Jaunaren ordena da... erriko botuak ditugula... eta denak botua eman dezatela... Ez baitago boto-emalle geyegi... zarrak eta gaxo daudenak eramateko, auto bat ipifiko dala. (*Berriro ere astoaren arrantza.*) Asto madarikatua! Bizkar-ezurra makilka nik autsiko diat oraindik iri. (*Ostatu-andreari*) Ekatzu edaten.

OSTATU-ANDREA.—Txuritik ala gorritik?

KOSE.—*Badakizu arras ontsa, bozetako egunetan, gorriak, gorritik bakarrik dugula edaten. Zuria atzikazu zurientzat.*

OSTALERTSA (Zerbizatu).—*Sekulan, arotza nausitzen bada bozetan, zure herrimuthilgo kargua galduko duzu ba, zuk ere.*

KOSE.—*Arotzak ez du sekulan gure mera aurthikiko.*

OSTALERTSA.—*Ez dakit... Joan den aldian, gorriak bi bozez nausitu zinezten gero bakarrik.*

KOSE.—*Oraikoan, nausituko gira hamarrez bederen... Gure mera, norbait da gero. Erakutsi ahal du zertaz kapable den... Noiz ikusi da, orai artio, holako herriko phesta ederrik. Hori kargutan sartuz geroz, bertzelako ordre eta garbitasunik da gero gure karrikan.*

OSTALERTSA.—*Ba, zuhaur karrika garbitzale zirelakotz.*

KOSE.—*Ba... Nihaur kridari, herriko muthil eta karrika garbitzale ere... Norbaitek behar du alabainan, lan horietako ere... Eta, bakarrik lan horiek guziak egiten baditu, herriko moltsarentzat hobe.*

OSTALERTSA.—*Ez du iduri, zu herriko langile sartzea biziki baliatu zaiola herriko moltsari. Zergak goratu daizkute segurik aurthen ere.*

KOSE.—*Zer zira, zu ere, gure kontra? Jaun merak jakinen du.*

OSTALERTSA.—*Erraiten ahal diozu segurki eta*

JOSE.—Badakizu ongi asko, bototako egu-netan gorriak gorritik bakarrik edaten degula. Txuria utzazu txurientzat.

OSTATU-ANDREA.—(Serbituaz).—Gaur edo biar, perratzallea alkate ateratzen bada, orratik, si-nista dezakezu, zure aguaziltza ori galdu de-zula zuk ere.

JOSE.—Perratzalleak ez du sekulan botako gure alkatea.

OSTATU-ANDREA.—Ez dakit ba. Joan dan al-dian, gorriak bi botoz bakarrik nagusitu zina-ten gero...

JOSE.—Oraingoan, gutxienez, amarrez nagu-situko gera... Gure alkatea ez bada ba nor-bait!... Erakutsi al-du ongitxo zertarako gau-za dan... Noiz ikusi da, orain arte, olako erri-ko phesta ederrik? Ori alkate dan ezkerro bes-telako txukuntasun ta garbitasunik da gero gure kaleetan...

OST.—Jakiña ba! Zu zaude kale-garbitzalle eta.

JOSE.—Bai... Ni neroni bando-jotzalle, ni Erriko mutil, eta ni kale-garbitzalle... Norbai-tek bear bait-du ori ere. Eta bakar batek guz-ti ori egiten duala, ea nolako mesedea Erriko boltsarentzat...

OST.—Ez dirudi ba asko, zu Erriko Langi-le sartzea Erriko boltsari asko-asko baliatu zaionik. Zergak eta petxak goratu egin diz-kigute beintzat-eta, aurten ere.

JOSE.—Zer gero? Zu ere gure kontra? Al-kate Jaunak jakingo du.

OST.—Esaiozu, esan, nai badezu. Berdin, bo-

halere... Berdin, bozak emanak ez direno, ni hartaz baino, hura nitzaz gehiago behartuko baita.

KOSE.—Bozak direla eta, ez da gehiago bazterretan buruzagien errespeturik... Banoa kridaren segitzerat. Arno hau, bozen kondu...

OSTALERTSA.—Ontsa da... Zuk hasia izanendu zu gorrien barrika. (Bakarrik) Haste komedia... Zortzi egunez, ha zer mozkorrak behar dituzten tiratu, zonbaitek hemen... Bi barrika arno edateko... Gorritik, barrika bat, gorriak eskainia... Xuritik bertze bat, xuriek eskainia. (urrunerat entzuten dira kridaria eta... astoa) Ezin sinhestsia da bozak nola nahasten dituen jende batzu... Boza aintzinean nehun seinale ez ziren jende batzu, ikus ditazke boza egune-tan arras harrotuak, nahasiak, gontzetarik jaliak... Irriegangarri dira egiazki... Politika egin behar dela nahi dut, bainan politika saltsa... Hanitzentzat, saltsan artzea da politika egitea.

—Orai, erradatazue nik nori behar diotan boza eman... Orai artainoko mera gorriari edo arotza kontrario zuriari... Ha, nahastekatzen ahal banintu bederen, arnoak bezala...

(Irriz dago urrungo kridari).—Huna jaun mera heldu... Izan gaiten beraz gorri.

MERA (Sartuz).—Agur, Kattalin... Hasi duzia gure barrika arnoa?

OSTALERTSA.—Ba, jaun mera... Herriko mutilak eman dio lehen tirakoa.

MERA.—Arno onetik dea bederen?

OSTALERTSA.—Ez da segurik Kose arrangu ratu.

tuak bukatu arte, ni artaz baño bera nitaz geiago beartuko da iñolaz ere.

JOSE.—Botuak dirala-ta, baztarretan ez da agintarientzat errespeturik. Eta ba'noa bando-jotzen jarraitzera. Ardo au, botuen kontura.

OST.—Ongi da. Zuk asia izango da gorrien barrika. (*Bakarik*) Komedi-astea... Zortzi egun otan ah zer moskorrak bildu bear dituzten zenbaitzuk emen! Bi barrika-ardo, edateko, Gorritik barrika bat, gorriak eskiñia. Txuritik beste bat, txuriak eskiñia. (*Urrutira entzuten dira bando-oyua eta... astoa*). Ezin sinistu liteke, botuak nola nahasten dituzten gizon batzuek... Botuak baño len iñun ere nabarmentzen etziranak, or ikusten dira botu-egunetan zearo arrotuak, nastuak, beren onetatik atereak. Egiazki parragarri. Politika egin bear da, noski; bañan politika-saltsa?... Askorentzat saltsan sartzea da politika egitea.

...Eta orai esadazute: nik nori eman bear diot nere botua? Orain arteko alkate gorriari? Ala, orren kontrako perratzalle zuriari? Nori? Gaitz-erdi, txuri ta gorri oiek elkarrekin nastu balitezke, salbo ta, ardoak bezela...

(*Urrutiko bando-oyuari parrez. Bañan bereala...*) Ara! Gure alkate Jauna. Onekin beintzat gorri azaldu bearko degu.

ALKATE J. (*Sartuaz*).—Agur, Kattalin... Asi alde-zute gure barrika-ardoa?

OST.—Bai, alkate Jauna... Erriko mutillak eman dio lenengo ikutua.

ALKATE J.—Ardo onetik izango da, noski?

OST.—Jose beintzat ez da kejatu, ta.

MERA.—*Ekazu xorta bat jasta dezadan... Grefiera ez dea oraino agertu?*

OSTALERTSA.—*Monsieur Philippe?... Ez, ez da oraino agertu... Estonatzeko baita harentzat. Ez bide du luzatuko*

MERA.—*Eta?... Hemen iragaiten direnek zer diote bozez?*

OST.—*Arotzak Gregorio hartzen omen du axurantzako.*

MERA.—*Ba, ba. Ez ginuke beharragorik gure herria desohoratzeko: Arotza mera eta eyherazaina axuant. Zerendako ez, axuantaren astoa, bere beharri haundiekin... Berdintsu laite.*

OST.—*Gregorio pasatu omen da etxe guzitan bozen galdatzeko.*

MERA.—*Ba, bere eyherazaingo ofizioa baliaitzen zaio hortako ere... Ustela. Eta denetan gauza bera kondatzen du: Nik botiges nizelakotz, ez omen dut deus ere komprenitzen karpainako harat hunatez. Arotzak ere gauza bera diote kabala ferratzerat heldu direneri.*

OST.—*Badutea entzule?*

MERA.—*Nork daki?... Kampaindarra hain da zoroa. Zuk eta nik, karrikarrek omen ditugu kampaindarrak tturrintzen... Eta, arotzak, eyherazainak, zer dire hek?... Kampaindarren laguntzale batzu beharbada? Zuk eta nik baino diru gehiago ba tiratzen diote horiek kampaindarrerri.*

OST.—*Ez duzia uste, hori karkulatzen dutela kampaindarrek berek ere.*

MERA.—*Batere ez dakit... Egin behar luke tena da segurik... Arotza hemen auzaphez...*

ALK.—Ekatzu baxo bat, proba dezadan...
Izkribaua ez da oraindik azaldu?

OST.—Don Phelipe? Ez; ez da oraindik
agertu... Arritzekoa bait-da. Bañan ez du nos-
ki asko luzatuko.

ALK.—Eta?... Emen dabiltzanak zer diote
botuetaz?

OST.—Perratzalleak Gregorio jartzen omen-
du ordeko.

ALK.—Ba, ba! Ez genduan besteren bearrik
erria parragarritzeko: Perratzallea alkate, ta
Errotaria bigarren. Zergatik ez errotariaren
astoa, bere belarri aundiekin? Berdintsu li-
tzake.

OST.—Gregorio ibilli omen-da etxerik-etxe
boto-billa.

ALK.—Baa! Bere errotari-izaera baliatzen
zaio arri ortarako ere. Ustel arranoa! Eta da-
netan gauza bera esango zuan: Ni botikario
naizenez, ez dedala ezer ere konprenditzen
baserrietako joan-etorrietaz. Eta perratzalleak
ere gauza bera omen die ganadua perratzera
datozenei.

OST.—Bañan, al-dute entzulerik?

ALK.—Nork daki? Baserritarra ain da zo-
zoa... Zuk eta nik, kaletarrak alegia txundi-
tzen omen-ditugu baserritarrak... Eta Perra-
tzalleak eta Errotariak, zer egiten diete, la-
gundu eh?... Ea zuk eta nik baño diru geyago
zurrupatzen ez ote-dieten oyek baserritarrak.

OST.—Eta ez al-dezu uste baserritarrak be-
rak beste orrenbeste kalkulatzten dutela?

ALK.—Ez dakit bat-ere. Egin bear bai... Pe-
rratzallea emen alkate? Ba, ba! Zer konpren-

Ohu!... Zer konprenitzen du horrek legetan? Ez da hori, jaunen arterat agertzeko on den gizona... Ohuu... Berak ere behar luke konprenitu... Bulegotan afera bat segitzeko nun du horrek jakitatea, eta nun astia ere... Uste badu merakoa josteta bat dela. Ha, huna grefiera.

Mr. PHILIPPE (sartuz).—Agur, jaun mera. Agur Kattalin.

OST. & MERA.—Agur Monsieur Philippe.

MERA (Mr. Philipperi).—Zikin horietaz ari ginen... Zure kontra ere badute erraiteka... Zuk duzula herriko etxean manatzen eta ez nik... Alderdikaria zirela, eta hola.

M. P.—Ba, jelos dira... Erakutsi baitugu, guk merian sartuz geroz, zertaz giren kapable. Gure karrikan, bertze ordrerik baita, eta herriko phestek ere, bertze itzurarik baitute, hori dute ezin jasan.

MERA.—Ba, eta arotzak ez dauka barkatzen, bere athe aintzinetik kendu diogun kabala edanarazteko ithurria... Ithurri hori herriena zen, eta ez berea... Uste duzia, hor, pollit zen, karrikaren gainean, bethi inguruak ixtiletan zauzkala, kabala ithurri hori?... Ithurria behar badu, aski du bat egitea, bere eremuetan.

M.P.—Utz ditzagun mintzatzerat... Eta, gure aldetik, bertze hainbertze egin dezagun...

MERA.—Nik segurik ene predikua egiten diotet botikarat jiten direneri.

M. P.—Pentsatzen dut, zuk ere Kattalin, ez

ditzen zaio orri lege-gauzetan? Al-da ori jaun-
nen artera agertzeko gauza dan gizona? Ba,
ba! Berak ere konprenditu bear luke orren-
beste. Auzi bat bear bezela eramateko non
du orrek jakinduri, eta nun astirik ere? Uste
ote-du alkatetza jostaketa bat dala?... A... Ara
Ixkribaua.

IAUN PHILIBE. (*Sartuaz*).—Agur, alkate Jau-
na. Agur, Kattalin.

OST. ALK.—Agur, Jaun Philibe.

ALK. (*Jaun Philibe'ri*).—Zikin oyetaz ari gi-
ñan izketan... Zure kontra ere ba'dute zer-
bait esan bearrik. Zuk agintzen dezula Erriko
Etxean, eta ez nik. Alderdikaria zerala, eta
ola...

J. PHIL.—Espa dute oyek, espa galanta. Era-
kutsi bait-degu guk garbi asko, alkatetzan
sartu ezkeroko zertarako gauza geran. Gure ka-
leetan beste txukuntasun bat dago orain; eta
erriko festak ere beste itxura bat dute; orixe
da ezin eraman dutena.

ALK.—Bai, eta gañera perratzalleak ez digu
barkatzen, bere ate-aurretik kendu izana len
ganaduak edanerazteko zuan iturria... Iturri
ori erriarena zan; etzuan berea... Uste al-de-
zute poliki ematen zuala or, kale-gañean, be-
ti inguruak loitan zeukan ganadu-iturri ori?...
Ortarako iturria bear duanak, asko du bat egi-
tea bere lurrean.

J. PHIL.—Utzi ditzagun, mintza ditezela. Eta
egin dezagun gure aldetik beste ainbeste.

ALK.—Nik beintzat nere predikua egiten
diet botikara etortzen diranei.

J. PHIL. Pentsatzen det baita, zuk ere, Ka-

ditutzula hunarat jiten direnak izilik uzten...
Badakizu zure etxean dugula aurthen, gerlari
ohien bazkaria.

OST.—Milesker, Mr. Philippe, eni pentsatu-
rik... xuritik edo gorritik?

M. P. (Irrigno batekin).—Holakorik, ez egun
hautan, guri galda.

MERA.—Errazu, eta... eman diozuia beha
kolpe bat lixtari.

M. P.—Ba, dena ontsa kurritu dut: baditu-
gu hogoi bat, errotik kontra, eta bertze hain-
bertze errotik alde... Azken hamarrak berritz
dudamudazkoak. Horien biltzerat behar dugu
entseatu. (Lixta eskuetan dauka).

MERA.—Nor zautzu iduritzen bil ginezazkela
hamar horietarik?

M. P.—Lehenik, hemen baditugu bizpahirur,
erretoraren ingurukoak: Justina zeinu joilea,
Dolorez, erretor baitan lanean dabilana... Pa-
ko, erretoraren ahuntz zaina.

MERA.—Erretora bera gure alde bil bagi-
neza?

M. P.—Ez da errex izanen.

MERA.—Aski diogu hitz emantea, elizaren
teilatua erreparatuko dugula... Badu beha-
rra...

M. P.—Ez da gaizki pentsatua.

MERA.—Eta zertako ere ez mana meza bat
gerlari ohientzat edo holako?

M. P.—Kasu eman behar dugu ahatik, go-
rriak ez deskontentatzea, zuriena sobera egi-
nez...

ttalin, ez dituzula onera etortzen diranak ixilik uzten... Ba'dakizu zure etxe ontan degula aurten, gerran ibilitakoen bazkaria.

OST.—Milla esker, Jaun Philipe, zure borondate onari... Txuritik ala gorritik?

J. PHIL. (*Irri bat ezpañean*).—Arren, Kattalin, egun otan ez galde guri olakorik.

ALK.—Esan, eta... Eman al-diozu begiratu bat lixtari?

J. PHIL.—Bai; dena ongitxo begiratu det: ba'ditugu ogei bat zearo kontrako eta beste ainbeste zearo aldeko. Azkeneko amarrak, berriz, dudamudako. Oyek gureganatzen bear degu sayatu. (*Lixta eskuetan duala*).

ALK.—Nor deritzazu gureganatu dezakegula amar oyetatik?

J. PHIL.—Lendabizi, beintzat, ba'ditugu emen jaun erretoraren ingurukoak: Justina kanpai-jotzallea, Dolorex Erretorarenean lanean dabillena... Pako Erretoraren auntz-azaya.

ALK.—Erretora bera guregana al bagenezaz...

J. PHIL.—Ez da errex izango.

ALK.—Esango diogu Eliza erretellatuko diogula... Bear ere ba'du-ta.

J. PHIL.—Ez da gaizki pentsatua.

ALK.—Eta zergatik enkargatu ez Mezatxo bat gerran ibilitakoentzat edo zerbait olako?...

J. PHIL.—Begiratu bearra dago, orratik, gorriak asarretu ez ditzagun txuri-jendeari loxintza geiegi egiñaz.

MERA.—Bon, askiko da bala bat muntatzea, gerlari ohien ohoretan.

M. P.—Hola, nunbait hor izanen da...(Lixta eskuetan) Hemen ikusten dut: Manez Mendigorri. Aspaldian, familia haundien medelaren beha dago... Hura aiphatuz, behar bada bil ginezake eta haren emaztea ere ba...

MERA.—Bon, aski diozu hitz emaita...

M. P.—Bi gazte baditugu soldado... Kolia bedera igorritz, herriaren izenean nik uste heien familiak ere alde ginituzke...

MERA.—Bai ta ere. Eta, Pako eta Dolorez.

M. P.—Dolorez, nik uste, jaun erretorak kontseilatuko du, etxeko langilea duenaz geroz. Pako nahasi hori aldiz, nork kompreni. Entseatuko naiz zerbait gisaz horren biltzerat. Bertzerik ez badezakegu, mozkor on batez bederen bilduko ahal dugu.

MERA (Ahapetik).—Bozetako untziaren zaintzaleak eginak direa?

M. P.—Bego hori ene gain... Eta, agian joan den aldian bezela, bazkaritako denboran, bakarririk utziko ahal gaituzte untziaren zain... Te, huna heldu Pako nahasi, erretoraren arthaldearekin.

PAKO (Leihotik ageri).—Alo, bixar, alo. (Ahuntzak "mee"ka ari zaizko) Nik ere joan behar diat ithurrirat... Errazu, Kattalin bozetako barririk idekiak ditutzuia?

OST.—Ba, sartzen ahal zira.

PAKO (Ez ditu ikusten Mera eta Mr. Phi-

ALK.—Bai; naikoa izango da dantza bat-edo eratzea, gerran izandakoen izenean.

J. PHIL.—Bai, bai; nonbait-or izango da. (*Lixtari begira*) Emen ikusten det: Manez Mendigorri. Aspaldian “Famili Aundidunen Carnetaren” zai dago. Uraxe aipatuaz, bear bada, guregana dezakegu, eta aren emaztea ere bai.

ALK.—Bai. Aski dezu itz ematea.

J. PHIL.—Bi gazte ere ba'ditugu soldado. Paketetxo bana bidaliaz, erriaren izenean, nik uste aien etxeakoak gerengana ditzazkegula.

ALK.—Bai, bai. Eta Pako eta Dolorex.

J. PHIL.—Dolorex, nik uste, jaun erretorak kontsejatuko du, etxeako langille duan ezker. Bañan Pako nahasi orri nork konprendi? Sayatuko naiz nolabait gureganatzen. Besterik ez bada ere, moskor on baten bitartez bederen bilduko al degu.

ALK. (*Aopetik*).—Boto-ontziaren zaitzalleak izendatuak al-daude?

J. PHIL.—Bego ori nere gain. Eta bear bada lengo urtean bezela aurten ere bazkaltzeko garayan, bakarrik utziko gaituzte ontzi-zai... Bañan, ona nun eldu dan Pako “nahasi” Erretoraren artaldearekin.

PAKO (*Sartu gabe, leyotik ageri*).—Ots! bixardo, ots! (*Auntzen “meekoa” entzuten da*). Zuek ezik nik ere joan bear diat iturrira... Aizu, Kattalin: bototako barririk idekiak al-dituzu?

OST.—Bai, bai. Sar zaitetz.

PAKO (*Ez ditu ikusten alkatea eta J. Phili-*

lippe).—*Ekhazu hunerat laster edaterat, laster, zintzurra arras xukoan baitut.*

OST.—*Zointarik nahi duzu: Xuritik edo gorritik?*

PAKO.—*Berdin zaut edozoin, xuri ala gorri. Berdin denek leher egiten ahal dute ene gatik.*

OST.—*Hola ostatu aintzinean, behar dituztia utzi ahuntz eta puttika horiek? Ez zirea jaun erretorak ikus beldur?*

PAKO.—*Erretorak bere edan aldia egina du goizean, mezan... Orai, ene aldi.*

MERA.—*Errazu, Pako.*

PAKO (Ikusten ditu).—*Ha, barkatu, Jaun Mera... Ez zintuztan ikusten.*

M. P.—*Zu, Pako, gerlan ibilia zira, pixka zombait bederen.*

PAKO.—*Ba... Altxatu ninduten eta aintzin hartarat igorri... Bainan, ni harat heldu orduko, gerla bururatu zen.*

OST.—*Holako soldadoa ikus eta, etsaiak ikharatu bide ziren.*

M. P.—*Papera batzu badituztu hor meriarat jinak, eta, nik uste, bazinukela, zuk ere, gerlako pentxionetan dretxo zerbait.*

PAKO.—*Ez da goizegi norbait nitaz okupa dadien.*

M. P.—*Bozak pasatu ordu, gure kargua beirutzen badugu segurik, hitzemaiten dautzut nihaur behar den tokirat joanen naizela, zure pentxionearen ardiesteko.*

PAKO.—*Ontsa da... Zerbait bururutzen baduzu, orhoituko naiz zutaz.*

pe).—Ekatzu azkar edaten; azkar, zintzurra zearo legor daukat-eta.

OST.—Zeintatik nai dezu? Txuritik ala gorritik?

PAKO.—Berdin zait edozein, txuri bezela gorri. Nigatik denak lertuko al dira; eta ni ere bai ayengatik.

OST.—Aizu, eta ostatu-aurrean utzi bear al-dituzu ola auntz eta antxume oyek? Ez al-ze-ra jaun erretorak ikusiko zaituan bildur?

PAKO.—Erretorak bere edan-aldia egiña du goizean Mezetan... Orain, nere aldi.

ALK.—Aizu, Pako...

PAKO (*Ikusiaz*).—Ah, barkatu, alkate jauna, Etzintudan ikusten.

J. PHIL.—Zu, Pako, gerran ibillia zera pixka bat bederen?

PAKO.—Bai; artu ninduten eta bidali ninduten aurre aietara. Bañan ni ara eldu nintzanerako, gerra bukatua zan.

OST.—Olako soldadoa ikusiña, etsayak ikaratuko ziran?

J. PHIL.—Paper batzuek' ba'dituzu erriko etxera etorriak, eta, nik uste, zuk ere izan dezakezula gerrako pentsio-eskubide zerbait.

PAKO.—Bazan ordu nitaz norbait akorda zedin.

J. PHIL.—Botuak pasatzen diranean —guk irabazten badegu— itz ematen dizut, neroni joango naiz bear dan tokira, zure pentsio ori logratzera.

PAKO.—Ongi da; eta zerbait iristen badezu, oroituko naiz orduan ni ere.

MERA.—Nahi baduzu zer bait burura deza-
gun, orhait zaite gutaz, bozkatzerat joaitean.

DOLOREZ (Leihotik samur).—Gizon trixtea...
Jaun erretorak, hoinbertze errana dautzu, ez
duela bere ahuntzarik ikusi nahi estekan os-
tatu aintzinean... Eta, oraino ere, hor zira?

PAKO.—Zaude deskantsuan, ene emazte be-
thi kezua, zu... Ez nai berdin jaun erretorak
despeituko, bailuke lan ene ordainaren atze-
maiten, bere ahuntzen alhatzeko.

DOLO.—Trixtea... Batere zure beharretan ez
delarik, urrikarik lana emaiten dautzu... Eta
horra zer axola duzun, zuretzat egiten duenaz

PAKO.—Erretorak jana, lanean truk emai-
ten daut... Eta hemen aldiz, edana urririk...
Hari bezenbat zor diotet hemengoeri.

M. P.—Errazu Dolorez, oraintzet aiphu nion
zure senharrari, zuek ere laguntza beharre-
tan zinetela, eta, gerlako pentxione bat ontsa
jina laitakela zuen moltsarentzat.

DOLO.—Ez gira pentxione beharretan bizi-
tzeko. Aski du lanean artzea eta gutixago eda-
tea.

PAKO (Oldartuz).—Horra zer errespetu duen
ene emazteak gerlari ohientzat... Eta, segur
naiz, zuri zikin horieri emanen diotela bere
boza.

DOLO.—Zuri edo gorri, denak berdinak za-
rezte... Denak su bereko on liezken egurrak...

M. P.—Emeki, emeki, Dolorez.

DOLO.—Zalu edo emeki; hori hola dena da...
Eta zuk, hobeki egin zinezake, gizon trixte
hori, hor, arnoz enganatzeko orde, igortzen

J. PHIL.—Iristea nai badezu, ba, oroitu zaitte, botua ematera zoazenean.

DOLOREX (*Leyotik, aserre*).—Gizon zoroa: erretore jaunak ainbeste aldiz esan dizu ba zuri, ez duala bere auntzarik ikusi nai lotuta ostatuko atean... Eta oraindik or al-zera?

PAKO.—Zaude lasai, nere emazte lantu-jotzallea zu... Berdin, ez nau erretora jaunak opizio ontatik botako. Kostako litzayoke nere ordeko bat arkitzen bere auntzak zaitzeko.

DOLOREX.—Zoroa!... Batere zure bearrik gabe, erruki utsez ematen dizu lana. Eta orra nola eskertzen diozun zuretzat egiten duana.

PAKO.—Erretorak jana lanaren truk ematen dit neri; eta emen edana berriz debalde ematen didate. Ari añaxe zor diet emengoai.

J. PHIL.—Aizu, Dolorex, oraintxe aipatu diot zure senarrari, zuek ere laguntza bearran ziñatela, eta gerrako pentsio koxkor bat ongi etorriko litzaiokela zuen boltsari.

DOLOREX.—Ez gera pentsio-bearrean, bizi izateko. Asko du lanean aritzea, eta gutxiago edatea.

PAKO. (*Oldartuaz*).—Orra nolako errespetua duan nere emazte onek gerran ibilli diranentzat... Eta seguru naiz txuri zikin oyei emango diela gañera bere botua.

DOLOREX.—Txuri edo gorri, denak berdiñak zerate. Denak su bererako on liraken egurrak...

J. PHIL.—Poliki, Dolorex, poliki...

DOLOREX.—Poliki edo azkar, ori ola da. Eta zuk obeto egingo zenduke, gizon zoro ori, or

bazinu bere lanerat... (Urrunduz) Den bezelako herresta.

PAKO.—*Lana... Egiten dut hura ere, bere tenorez... Oraino iduzkiak badu zer argi... Zer duzu hola eni jazartzeko?*

M. P.—*Ez duzu gehiago hor... Debaldetan zira hari mintzo.*

PAKO.—*Hobe du urrundu baita. (Urrunerat mintzo) Zuri banda zikina zu... (Ahuntzak mee-ka lotzen zaizko) Ixilik zuek ere, pittika ergelak... Presatuak zireztea?... Ni, bat'ere... Sofriazue hor... Yes, ez daukute elgarrekin solastatzeko astirik ere utzi nahi.*

XIXON (Sartuz).—*Hela...*

PAKO (Irri trufaz).—*To, Xixon... Aieiai... Xixon... Ez ginian bertze beharragorik.*

MERA (Samur).—*Errazu, Pako, ene semeak badu gero bere izena.*

PAKO.—*Bixtan da, Jaun mera, ez dela ize-nik gabekoa, zure semea... Ez dut ez gaxtakeriaz deithu Xixon.*

MERA.—*Bon... Hemendik aintzinarat deithuko duzu Ttotte, eta ez bertzela... (Semea-ri) Zertarat jina hiz hunarat?*

XIXON (Dena grimas).—*Aita... Erbia, erbia, nik ikusi... Fite, fite... Tau, tau...*

MERA.—*Erbia ikusi?... Ez duk oraino ihizia idekia... Ago oraino, zombait egun; gero tiro bat emaiten ahalko diok.*

PAKO (Irri larri batekin).—*Anartean, emok buztan azpian gatza... Beharbada bilduko duk.*

ardoz engañatu gabe, bere lanera bidaliko bazendu. (*Bijoa*) Narrasa, ez besten narrasa!

PAKO.—Lana? Egiten det ura ere, bere garaiz. Oraindikan eguzkiak ba'du argi-bearrik. Zer dezu neri ola erasotzeko?

J. PHIL.—Alperrik ari zatzazkio; joan da.

PAKO.—Obe du, bai, joan dan. (*Oyuka, urrutira mintza alegia*) Zuri-zale zikiña zu... (*Auntzak meeka asten zaizkio*) Ixilik zuek ere, antxume ergelak. Estu al-zerate? Ni ez batere. Sufri zuek ere or. Jes... Ez digutela elkarrekin itz bi egiten ere utzi bear...

XIXON. (*Sartuaz*).—Ola...

PAKO (*Irriz ta ixekaz*).—To... Xixon... Ara, ara, ara... Xixon. I palta intzan oraintxe.

ALK. (*Aserre*).—Aizu, Pako: nere semeak ba'du gero bere izen...

PAKO.—Sinisten det, alkate jauna, ez dala izen-gabekoa izango zure semea. Bañan ez dezazula pentsa, Xixon gaiztakeriz esan diodanik.

ALK.—Ba, emendik aurrera Ttotte esango diozu, ta ez bestela. (*Semeari*) Zertara etorri aiz onera?

XIXON (*Keñu ta keñu*).—Aita... erbia... erbia... Nik ikusi... Aguro... Aguro... Tau... tau...

ALK.—Erbia ikusi?... Eiza oraindik idiki gabe zegok... Ago egun batzuk oraindik; eta gero ia tiro bat ematen diokan?

PAKO (*Irri-larriz*).—Anartean emaiok isats-azpian eskutada bat gatz; eta bearbada arrapatuko dek.

MERA (Kexu).—Pako, lehuntxago ez zintaz-
kea mintza haur huri?

PAKO.—Haur horri, haur horri... Xixon,
edo... hori ez da haurra... Ihiziko permisa har-
tzen duen gizona, haurra zautzia? (Irriz) To,
beharrrik erbiek ez zakie nor duten ihiztari...
Eta... errak, Xixon —ha, ez dezakeat ba Tto-
tte erran—errak, zoin begi hesten duk tiro ti-
ratzeko?... Ezkerra edo eskuina?

XIXON.—Hau naski. Edo ez, bertzea... (Be-
giak aldizka tapatuz, bera ezin karkulatuz ari
da).

PAKO.—Zozoa. Tapa-aitzik biak. Hola hobe-
ki ikusiko duk (Xixonek obeditzen du... Be-
ra, irriz lehertua).

MERA (Araz kexu).—Ttote, haugi enekin
kanporat. Eta zuk, bertze aldi batez, ez ba-
duzu errespetu gehiago ekhartzen jende ma-
lurusari, enekin izanen duzu afera.

M. P. (Lanoki).—Gauden ixilik. Berex zaiz-
te sumintu gabe... bozak ere hor ditugu, eta,
zombait ez liezke guti lorian, ikusiz nahasiak
gabiltzala.

MERA (Bethi kexu).—Berdin zauzkit ber-
tzeen sentimenduak... Holakoek beharri on-
doko batzu merezi dituzte.

XIXON.—Aite, erbia... fite, fite.

MERA.—Ba Ttote, goazen hemendik (Pako-
ri) Xantza duzu giren tenoren baigira... Ber-
tzenaz, zure buru aintzindegi horrek bero-aldi
bat har bailezake. (Jalitzen dira).

PAKO.—Ha, hola duzia errespetatzen boz
emailea. Ostalertsu, ekazu hunarat xuritik

ALK. (*Asarre*).—Pako: ezin mintza al-zenkizkio leguntxeago aur oni?

PAKO.—Aur orri, aur orri?... Xixon edo... ori ez da aurra... Eizarako eskupeta opa diozuna, aurra? (*Irriz*). Etzekitek asko asko erbiak nor duten eiztari! Aizak, eta, Xixon—barkatu; ezin oitu nauk Ttotte esaten—esazak, zein begi isten dek tiro egiteko: ez-kerra ala eskua?

XIXON.—Au noski... Ez ez, bestea. (*Begiak aldizka tapatuz; ezin asmatu alegia*).

PAKO.—Zozoa! Tapa itzak biak. Ola obeki ikusiko dek. (*Xixon'ek obeditu, eta bera parrerez lertzen*).

ALK. (*Zearo asarre*).—Ttotte, ator nerekin kanpora. Eta zuk, gaur edo bigar, ez badiozu olako gizagaxo bati errespetu geyago ekartzzen, nik jakingo det zurekin zer egin.

J. PHIL. (*Lañoki*).—Gauden ixilik. Bereizi zaitezte sumindu gabe. Botuak ere laister ditugu, eta batzuren batzuek ez lirake gutxi poztuko, elkarrekin aserre gabiltzala ikusiaz.

ALK. (*Beti aserre*).—Berdin zaizkit besteen pozak... Au bezelakoak, belarri-ondoko bat merezi dute, uraxe.

XIXON.—Aita: erbia... Aguro, aguro.

ALK.—Bai, Ttotte, goazen emendik. (*Pako'ri*) Suerte dezu, gauden egunetan egotea. Bestela zure bekoki orrek artu lezake bero-aldi bat oraintxe. (*Irteten dira*).

PAKO.—Aa? Ola errespetatzen dezu zure boto-emallea?... Ostalaria: ekatzu onera txu-

edaterat. Ez dut gorritik gehiago deus ere nahi.

M. P.—Ez ahal zira, ez deus batentzat, beren ideiez aldakor diren hetarik.

PAKO.—Errazu nahi duzuna... Biba zuriak... (Edaten du).

M. P.—Libro zira nahi duzunari boza emaita, bainan zure onetan, orhoit zaite ondoko egunez.

PAKO.—Biba zuriak.

M. P. (Idorki).—Ontsa da... Zure gerlako pentxionearen biltzeko, atzemanen ahal duzu nitaz bertze adixkiderik... Egin-zkitzu zure gogoetak. (Jalitzen da).

PAKO (Bakarrik).—Nola den ahatik. Bertz' orduz, nehork ez dautet kasurik ere egiten. Pako mozkorra, Pako nahasi erran-eta, denak kito dira enekin... Bainan, heldu da bozkatzeko tenorea, ez da orduan erregerik ni baino ohoratuagorik... Aintzin egunetako zorria denak agurka dabilkate. Hortako balia gaiten egun hautaz. Ase gaiten bertzeen gostuz... Gure beharretan baitituk, beha diezoguten goratik. Izanik ere ni, munduko kreaturetan trixtena, edariaz daldaran daukaten eskuaz emaiten dudan bozak, bertze edozoin gizonena bali du... Gizonak berdin dituk sortzean, hiltzean eta boza emaiten, Ha zoin goxo den hola jaun handi batzuen, zure eskale bilakatuak, ikustea... Pena da ez baitira bozkatzekak maizago.

JUSTINA (Kampotik).—So astoa, so... (Sartuz) Hela, badea norbait?

ritik baxo bat. Ez det gorritik geiago ezer-ere nai.

J. PHIL.—Tira, tira! Ez al-zera izango zu ere ezer-ez batengatik bere ideaz aldatzen diran oyetatik bat.

PAKO.—Esazu zuk nai dezuna. Gora “zuriak”! (*Edaten du.*)

J. PHIL.—Libre dezu nai dezunari botua ematea; bañan —zure onetan dizut— oroituzaitetz biaramonaz.

PAKO.—Gora “zuriak”!

J. PHIL.—Ondo da. (*Legorki*) Zure gerrako pentsioa iristeko, billatzen al-dezu ni ez beste adiskiderik. Egizu nai dezuna... (*Irtetzen da.*)

PAKO (*Bakarrik*).—Nola dan orratik! Beste egunetan iñork ere ez dit kasurik egiten. “Pako moskorra” eta “Pako zoroa” esan, eta ki-to... Bañan etorri al-da botuetako garaya, orduan ez da erregerik neri baño loxintxa geyago egingo zayonik. Lengo egunetako “zorri-partza”, orain danok agurka darabilte. Balia gaitezen, bada, egun oetaz. Ase gaitezen besteren kontura. Gure bearrean bait-zeudek, begira dezaiegun sorbalda-gañetik. Munduan gizonik gaizoena naizela, bañan, edariaz dal-dal daukadan esku onek ematen duan botuak, beste edozeiñenak aña balio dik... Izan ere, gizonok iru gauza oyetan gaituk denak berdin :jayotzean, iltzean eta botua ematean... Ah! zeñen goxo dan, ola, zenbait jaun aundi zure eskale biurturik ikustea! Lastima aundia, botuak maizago ez izan-bearra!

JUSTINA (*Kanpotik*).— So, astoa! So... (*Sartzen da*). Egun on! Ba al da emen iñor?

PAKO.—*Te, Justina, zeinu sariketan, bere astoarekin... (Justinari) Agur Justina, ene sehi laguna.*

JUST.—*Zerendako niza zure sehi laguna?*

PAKO.—*Ene sehi laguna zira, nik jaun erre-toraren ahuntzak zaintzen ditudalakotz... Zuk aldiz, andere serora: eliza garbitzen aldarea aphaintzen eta ezkila joiten... Beraz, nagusi beraren zerbitzari girelakotz. Ahatik, goiz huntan, ez naiz zutaz kontent.*

JUST.—*Zerbeitetan, uts egin dautzuta?*

PAKO.—*Ba. Zuk, Justina duzu izena, bainan ez duzu izen hori merezi, ez bantuzu "justu" ezkila joiten. Goiz huntan, ahuntz alhatzerat joiteko ideia nuen zortzitan xuxen... Bainan, zuk berantegi zeinua jo duzulakotz, nuzu te-nore huntan oraino hemen kausitzen.*

JUST.—*Zeinua? Bortz minuta gora behera, bethi tenorez xuxen joiten dut.*

PAKO.—*Ba, eta minuta horiek aski ni dene-tan makurtzeko... Errazu, zuritik edo gorri-tik edaterat sartua zirea?*

JUST.—*Ez naiz edaterat jina... Hori zure-tzat uzten dut, ni zeinu saria biltzen nabila.*

PAKO.—*Jaun erre-torak, batere gizon balitz, behar laizuke bizitzekoa eman, hola eske ibil-arazi gabe.*

JUST.—*Ez dut jaun erre-torarentzat ezkila joiten, bainan herriarentzat... Herriarreri da ni saristatzea.*

PAKO.—*Hoinbertze diru biltzen baitu igan-*

PAKO.—Ixo; Juxtina bere astoarekin kanpai-sariak biltzen. (*Justina'ri*) Agur, Justina, nere mirabe-laguna.

JUST.—Ni zure mirabe-laguna? Nola gero?

PAKO.—Bai, Juxtina, bai, mirabe-lagun gera biok: nik erretoraren auntzak zaitu, eta zuk —andere serora— eliza garbitu, aldareak apaindu eta kanpayak jo... Beraz nagusi beraren serbitzari gera. Ain xuxen ere, ez nintzan gaur goizean oso kontentu zurekin.

JUST.—Zerbaitetan uts egin al-dizut ba?

PAKO.—Bai, bai. Zuk Juxtina dezu izena, bañan ez dezu izen ori merezi, ez bait-dezu “juxtu” jotzen kanpaya. Gaur goizean zortzi-zortziretan auntzak bazkatzera eramateko asmoa nuan; bañan zuk kanpaya beranduegi jo dezulako ain xuxen arkitzen naiz oraindik emen, nere auntzekin.

JUST.—Kanpaya? Bost minutu gora behera xuxen jotzen det nik kanpaya.

PAKO.—Ba, minutu oyek asko izaten dira ni egun guztirako okertzeko... Esazu ta, zuri-tik ala gorritik edatera sartu zera?

JUST.—Ez naiz edatera etorria... Ori zuretzat uzten det; ni kanpai-saria jasotzera etorri naiz.

PAKO.—Erretora jaunak, bat ere gizon baltz, berak eman bear lizuke zuri bizi izateko bear dezuna, ola eskean ibillierazi gabe.

JUST.—Bañan nik ez bait-det erretora jaunarentzat jotzen kanpairik, erriarentzako baik. Erritarrai dagokie neri sari ematea.

PAKO.—Ainbeste diru biltzen du ba ark,

deko esketan, zer egiten othe du horietaz guzietaz?

JUST.—*Hanitz emaiten dakozia zure partetik?*

PAKO.—*Zu bezalako bat pagatzeko, aski biltzen ahal du.*

JUST.—*Zu haztekorik ez balu aldaratu behar, hura gehiago luke segurik.*

PAKO.—*Zuri guziak berdinak dira... Denak beretako nahi dituzte, eta bertzendako... ondarrak... Zu ere, heien alderdikoa zira. Hasteko, zure uda-partea zeinuarentzat biltzeko, astoa Gregoriok prestatzen dautzu.*

OST.—*Ez zozula kasurik egin Justina... Hori zure saria... Hau moltsako eta hau (botoila bat) kafe ondoko.*

JUST.—*Milesker hanitz... Segur izanen dute emplegu.*

PAKO.—*Errazu, sehi lagun gisa, kafe ondoko horrentzat gomitatuko ahal nuzu?*

JUST.—*Ez, ez da hori zuretzat on... Ur benedikatutik baita hor.*

PAKO.—*Hale eta hobeago... Beharbada konbertituko nuzu, hortarik edaterat emanaz.*

JUST. (Jalitz).—*Huna jaun erretora nun heldu zautzun konbertitzerat. Muitzen ahal zira.*

PAKO (Xutituz).—*Ha, debrua... Segur, ahuntza eta pittikak athean ikusi ditik.*

ERRETORA (Zukar boza kexu bat, urrundik).—*Errazu, Justina, Pako ostatuan dea?*

JUST.—*Uste dut hala ditaken.*

Igandetako eskabideetan; zer egiten ote du diru orretaz?

JUST.—Asko ematen al dezuz zure poltxikotik?

PAKO.—Zu bezelako bat pagatzeko beintzat nolanaiz biltzen al du.

JUST.—Zuri emateko apartatu bear ez bazu, ura geyago luke gañera.

PAKO.—Txuri-jende guztiak berdiñak dira... Dana berentzako nai izaten dute; besterentzako... ondarrak. Zu ere oyen alderdikoa zera. Zure kanpai-jotze-saria biltzeko astoa ere Gregorio'k prestatu dizu zuri.

OST.—Etzaiozula kasurik egin, Justina... Tori zure saria. Au boltsarako, eta (*eman bezayo botil bat*) au, kafe-ondoko.

JUST.—Millesker, millesker. Ondo etorriko da guztia.

PAKO.—Aizu, Juxtina: mirabe-lagun bezela ez al-didazu kafe-ondoko ortarako gomite egin-bear?

JUST.—Ez; ez da ori zuretzat on. Ur be-deinkatua bait-da or.

PAKO.—Anbat obeto. Bear bada, konbertitu egingo nauzu ortatik edaten emanaz.

JUST. (*Irtenez*).—Orra non datorkizun erretora jauna zu konbertitzera. Mugitzen al zera oraintxe.

PAKO (*Txutituaz*).—Ah! demoniñua! Seguru asko auntzak eta antxumeak atean ikusi dizkik.

ERRETORA (*Aserre-itza, urrutitik*).—Aizu, Justina: Pako ostatuan al-da?

JUST.—Ala det uste.

ERRE.—*Errozu othoi, ez dudala manatu ahuntzak ostaturat joan ditzan, bainan larrekirat.*

PAKO (Ahapaletik).—*Baietz, baietz, eremanen ditudala larrekirat, eta, ez bada kontent, zakurraren iphurdirat (Jalitzen da).*

ERRE. (Boza hurbilago).—*Gizon trixtea zu... Arnoak zaitu galtzen. Urhatsik ez baitakizu egiten ostatu zikin horietan sartu gabe... (ahuntzak mee-ka).*

OST. (Bakarrik).—*Ostatu zikinak... Ostaturik ez balitz, ttipi laitatea mozkorren nonbrea?... Ni ez segur... Guk edatekoa eskaintzen dugu eta ez mozkortzekoa... Hunerat sartzen direnak har bezate izaria... Te, kasu... Horra zuriak heldu: Arotza eta Gregorio eyherazaina. Bat mera eta bertzea aruant gaia. Oxtian gorritik eta orai zerbitza dezagun zuritik.*

AROTZA & GREGORIO (Sartuz).—*Agur Kattalin.*

OST.—*Agur jaunak... Heldu ziztea, besteak bezela zuen planen tiratzerat?*

AROT.—*Ba... Eta, pentsatzen dugu, zu ere gure adixkidetan kondatzen ahalko zitugula...*

OST.—*Nik ez dut, zuen artean, adixkidez bertzerik.*

GREG. (Jartzen direla).—*Ene konduak eginak ditut. Aurthen, gorrien arbolak erroz gora joan beharko baitu.*

AROT.—*Joan den aldian, ustel horiek nau-situ badituk, gure falta ere baduk... ez diagu*

ERRET.—Esaiozu, arren, ez diodala agindu auntzak ostatura eramatekorik, larrera baizik.

PAKO (*Aopetik*).—Baietz, baietz; eramango ditudala larrera, eta kontentu ez bada, zaku-rraren ipurdira. (*Ateratzén da*).

ERRET. (*Itza alderago*).—Gizon zoroa zu... Ardoak galtzen zaitu. Ez bait-dakizu, pausobat egiten ostatu zikin oyetan sartu gabe. (*Auntzak mee-ka*).

OST. (*Bakarrik*).—“Ostatu zikiñak”... Ostaturik ez balitz, gutxituko ote lirake orregatik moskorrak? Nik ez uste... Guk edatekoa eskeintzen degu eta ez moskortzekoa. Onera sartzan diranak artu bezate berak beren neurri... Bañan orra! Orra nun datozen txuriak: perratzallea eta Gregorio errotaria; bata Alkate-gaya, ta bestea Alkate bigarren-gaya. Oraintxe arestian gorritik; serbi dezagun orain txuritik.

PERRATZALLEA eta GREGORIO (*Sartuaz*).—Agur, Kattalin.

OST.—Agur, Jaunak. Eldu zerate, besteak bezela zuek ere zuen karkuluak egitera?

PERRATZ.—Bai... Eta pentsatu ere pentsatzen degu, zu zerori gure adiskideetan konta ahalko zaitugula.

OST.—Nik ez det zuen artean adiskide besterik.

GREG. (*Esertzen dira*).—Nere kontuak egiñak ditut. Aurten gorrien arbola ipurdiz gora joan bearra da.

PERRATZ.—Joan dan urtean, ustel oyek nagusitu badituk, gure faltaz izan dek. Ez geni-

aski ontsa bozetako untzia zaindu... Bazkari denboran, berak bakarrik zirelarik egin die jikutria... Untzia ideki... Barnetik, hamar bat boza guretarik kendu, eta berenetaz ordaindu.

GREG.—Aurthen ez daukutela holakorik eginen, segur izaiten ahal zira... Nihaur egonen bainaz egun guzia, erne ernea, untziaren aldean. Eta, hanbat gaxto berak aldartzzen badire untziaren ondotik... Hamar bat paper, prest presta, sakelan beiratuko baititut, azken aldiko bozetan ebatsien ordaintzeko.

AROT.—Gure beharrez, batzuk urrundu behar badugu ere untzitik, bertzeak han dagoztzila...

GREG.—Zaude deskantsuan... Han izanen naiz kasu egile.

AROT.—Eta?... Mintzatu dituka kanpañarrak, eyherako itzulia eginez?

GREG.—Ba... Bakarrak erran diozkate botigesaren kontra... Heien diruz dela aberasten... Ez duela hetaz axolarik eta ez ere, heien aferetan, deus konprenitzen.

AROT.—Botiges zikina... Ez zioiat irets ithurri hori zertako kendu daitaken ene etxe aintzinetik. Ezarriko diat ba nik ithurri hori bere lehengo lekuan.

GREG.—Errekatzarrekoeri zubi berri bat hitzimana diotet pasatzen bagira eta Gaztainaldekoeri bidea harriztatzea...

AROT.—Ontsak duk... Errak, eta, ... entzun duka jaun erretorari, elizako teilatua erreparatzea hitzeman diotela?

kan botuetako ontzia bear bezela zaitu. Bazkari-denboran berak bakarrik zai zeudela, egin ziguteken nai zuten saltsa guztia: ontzia ideki, barrutik gureetako amar bat boto kendu, eta ordañak berenetatik ipiñi.

GREG.—Aurten, orratik, eztingute olakorik egingo. Neroni egongo naiz egun guztian, erne-erne, ontziaren ondoan. Eta ainbat gaxtoago ayentzat berak ontziaren ondotik alde egiten badute; amar bat papel prest-prest poltxikoan gordeko ditut, igazko botuetan lapurtutakoak ordaintzeko.

PERRATZ.—Zenbait bearkizunez ontzitik urrutiratu bear badegu ere, daudela an gañerakoak.

GREG.—Zaude lasa; an izango naiz ni begiratzalle.

PERRATZ.—Eta?... Mintzatu al aiz baserritarrakin ire errotako joan-etorria egiñez?

GREG.—Bai, bai. Ederrak esan dizkiet botikarioaren kontra. Baserritarren diruz aberastu dala; ez diola bat-ere ayen ajolarik; eta ez zaiola tutik ere konprenditzen aien goraberaetan...

PERRATZ.—Botikario zikiña! Zergatik kendu bear zian orrek iturri ori gure etxe-aurretik? Nik ezarriko diat berriz ere iturria lengo lekuan.

GREG.—Errekatxarrekoai zubi berri bat agindu diet, irabazten badegu; eta Gaztainaldekoai, berriz, bidea arriztatuko diegula...

PERRATZ.—Ondo zegok... Aizak, eta... entzun al dek jaun erretorari, elizako tellatua erretellatzeko itza eman diotela?

GREG.—Mesfidatzen hasia naiz ez othe dugun bederen jaun erretora horien alde.

AROT.—Jaun erretora gorriekin?... Baduka burutik?

GREG.—Berdin... Horiek zerbait agintzen badiote, eta guk deus er'ez.

AROT.—Bon... Guk ere elizako teilatua erreparatuko diuk ba... Eta, gainerat, zer petrenitzen dik?

GREG.—Aisienik, nik uste, gure alde bil ginezake, gauazko balak herrian debekatuko ditugula hitzemanaz.

AROT.—Bon...Aski diok hori erraitea aha-petik... Jendek ahatik holakorik ez dezatela jakin, bertzenaz baiginiezkek, hortan ere, kontra liezkenak.

GREG.—Justinari hitzeman diot herriak pagatuko duela, pasatzen bagira, eta Pakori ere, herriko langiletzat hartuko dugula.

AROT.—Hanitz hitzemaiten diuk... Hitzaren atrikitzea izanen diuk lan.

GREG.—Behingoan bozetan pasatzea behar dugu xerkatu... Ondoko egunetan, zerbait estaturu bethi atzeman ditake hitzaren ez beiratzeko. Bertzek ere hala egin izan dute.

AROT.—Ontsa duk... Bertz'alde, ihiziko batasunaren membro hizenaz geroz, ez dituka, zerbait gisaz, ihiztariak hire ingururat biltzen ahal egun hautan?... Horietarik ere baginizkek boza zombait.

GREG.—Zaude deskantsuan. Ez ditut ahan-tzi. Ihiziaren idekitzeko phesta handi baten

GREG.—Susmo txarrak artzen asita nago, bai, ni ere, ez ote dagon gure erretor jaun ori gorrien alde...

PERRATZ.—Jaun erretora gorriekin?... Burutik egin al-zaik?

GREG.—Jum... Oyek zerbait agintzen badiote, eta guk ezer ere ez...

PERRATZ.—Tira ba... guk ere Elizako tellatua erretellatuko zioagu. Eta ortaz gañera zer geiago naiko dik?

GREG.—Zer?... Ba nik uste, oso gure alde bildu genezakeala, gauezko dantzak debekatuko ditugula itz-emanaz.

PERRATZ.—Ondo zegok, esaiok, bañan aopetik; ez dezala jendeak jakin olakorik; bestela apika izango diagu nor-edo nor kontra orregatik.

GREG.—Justina'ri esan diot, irabazten badegu, erriak pagatuko diola bere kanpai-lana; eta Pako'ri, berriz, erriko langilletzat artuko degula.

PERRATZ.—Geitxo agintzen ez badek... Itza betetzeak emango ziguk lan gero.

GREG.—Oraingoz, botuak irabazi ditzagun. Gero gerokuak; gero ez degu faltako aitzakiren bat emandako itza ez betetzeko. Besteak ere beste orrenbeste egin izan dute.

PERRATZ.—Ederki zegok... Eta orain beste zerbait. I, eiztarien lagun-artekoa ez al-aiz? Ez al-itukek poliki-poliki ireganatuko eiztariren batzuek egun auetan? Oyetatik ere bildu genitzazkek zenbait boto...

GREG.—Zaude lasai. Ez dauzkat azturik. Eizaren asierako festa aundi bat eratzen ari

*muntatzen ari naiz... Eta, badakizua nor du-
dan sustengatzailerik errabiatuena?*

AROT.—*Nor?*

GREG.—*Xixon arditu hori.*

AROT.—*To... Gaizo abila... Bon, bon... Irri
egiteko lagunak ere on dituk... Eta, bahakika
noren ondotik, bihotza pilpil, abiatua den te-
tele hori?*

GREG.—*Noren ondotik?*

AROT.—*Gure Bertaren ondotik.*

GREG.—(Irriz).—*Zure alabak Xixonen guti-
zia ahal du...*

AROT.—*Bahakik nolakoa den Berta... Mal-
tzurkerian laket baitzaiok, nahi dian guzia
egiten dik Xixonekin.*

GREG.—*Gaizo Xixon. Urrikari dut zuen
Bertaren aztaparretan.*

AROT.—*Ba, ba... Gure neskato deubrusa ho-
ri, harekin jostatzen duk, gatu saguarekin be-
zala.*

BERTA (Leihotik).—*Aita.*

GREG. (Irriz).—*Te, huna Berta... Nor baita
aiphatzen eta hura agertzen.*

BERTA.—*Gero erranen duzue emaztekiak di-
rela bakarrik bertzen jorran hartzen.*

AROT.—*Ez gintunan nehoren jorran ari...
Sar-adi hunadino.*

BERTA.—*Ez, aita... Petraeneko idiak ferra-
tzeko hor direla, erraiterat jina nintzan.*

AROT.—*Bon... Badine astia ixtant bat... Sar-
adi. (Sartzen da) Erran... Xixonez ari gintu-
nan... Hik, nahi dunana egiten baitun horre-
kin, guri boza emaiterat behar huken bildu.*

naiz egunotan... Eta ba'dakizu nor dan laguntzallerik beroena?

PERRATZ.—Nor?

GREG.—Xixon bitxi ori.

PERRATZ.—To... Tonto abilla... Etzegok gaizki. Parra egiteko lagunak ere on izaten dituk inoiz. Eta bai al-dakik noren ondotik biotza pil-pil asia degun tetele ori?

GREG.—Noren ondotik?

PERRATZ.—Gure Berta'ren ondotik.

GREG. (*Irriz*).—Zure alabak Xixon'en kutizirik bai al-du gero?

PERRATZ.—Ba'dakik nolakoa dan gure Berta. Maltzurkeria atsegin bait-zaiok, berak nai duan guztia egiten dik Xixon'ekin.

GREG.—Xixon gaizoa! Urrikari det zuen Berta'ren atzaparretan.

PERRATZ.—Bai, bai. Gure neska deabrutxoa beintzat ederki jostatzen dek Xixon'ekin, katura xaguarekin bezela.

BERTA (*Leiotik*).—Aita.

GREG.—(*Irriz*).—Ixo! ona Berta. Otsoa aotan, eta otsoa ateetan.

BERTA.—Gero esango dezute, emakumeak dirala bakarrik besteen jorran aritzea gustatzen zaienak.

PERRATZ.—Ez giñunan inoren jorran ari... Sar adi oneraño.

BERTA.—Ez, aita. Petraene'ko idiak perratzeko etorriak dirala esatera etorri naiz.

PERRATZ.—Bai, bai. Ba'diñat astirik. Sar adi (*Sartzen da*). Aizan; Xixonez ari giñunan. Ik nai dunana egiten bait-den orrekin; guri botua ematera erakarri bear uken.

BERTA (Irriz).—Gaizo Xixon. Ez nintake etxetik ere jali... Bethi tete bezala, gibeletik dut... Orañ ere; ikusi bainu hemen sartzen, nahi duzia laster hemen dela?... Bai, hori be deren lagun fidela dudala... Ez du ene amodioa, bainan ene eritasuna.

GREG.—Ez duzu hori guti plazer hartzen.

BERTA.—Batzuetan jostagarri da, bainan bertzetan akitgarri.

GREG.—Jaun meraren semea da gero... Seme bakarra... Ontasunak iduzkitan dituen... Ez zintazke batere gaizki horrekin.

BERTA.—Ez nuke bethi bertzetarat alha dadien beldurrik.

GREG.—Beñin bethi, har zazu diruaren gatik... Gero, salda beltzatik zerbitzatzen badiozu ere.

BERTA.—Salda beltzatik?... Zer da hura?...

GREG.—Salda azkar bat duzu hura... Hura edan-eta ez omen da gehiago iratzartzen.

BERTA.—Gizagaizoa... Aise emaiten duzu zuk jendeeri despeirako tratamendua.

GREG.—Hori... Huna nun bera heldu zautzun.

BERTA.—Ba, ez zen dudarik, laster agertuko zela nunbaitik. Khea suari bezen jarraikia baitzaut.

XIXON (Sartzen da, deus ere erran gabe, eta Bertari loriatua plantatzen).

GREG.—To, hor hiza, Xixon. Errak, fama gaitza entzuna diat hiretzat... Egia dea hi eta Berta laster ezkont zireztela?

BERTA (Irriz).—Ba, ilhabete hunen seigarren igandean.

BERTA (*Irriz*).—Xixon gaizoa! Ezin ninteke etxetik irten. Or det beti ondotik. Orain bertan ere, ikusi bait-nau emen sartzen, nai dezute laister emen dala? Bai; ori beintzat ba' det nik lagun zintzo. Ez dago nere maitasunez ukitua bakarrik; nigatik zoraturia dago.

GREG.—Ez dezu orrekin gusto gutxi artzen.

BERTA.—Batzuetan jostagarri da; bañan baita bestetan gogaitgarri ere.

GREG.—Alkate Jaunaren semea da gero... Eta seme bakarra. Ondasunak eguzki epeletan dauzkana... Etziñake bat ere gaizki izango olako batekin.

BERTA.—Bildurrik beintzat ez nuke bestetara makur dedin.

GREG.—Etsi-etsian ar zazu diruarengatik. Gero salda beltzetik serbituko badiozu ere.

BERTA.—Salda beltzetik? Zer da ori?

GREG.—Salda sendo bat, Berta, salda sendo bat. Artatik edan-eta, ez omen-da geiago esnatzen.

BERTA.—Gizagaxoa! Errez ematen diozu zuk jendeari azkeneko tragua.

GREG.—Ara! Orra nun datorkizun bera.

BERTA.—Bai, bai. Etzan dudarik, laster agertuko zala nunbaitetik. Kea suari bezain jarraikin zait.

XIXON (*Sartzen da; eta ezer ere esan gabe, plantatzen zaio Berta'ri begira zoraturik*).

GREG.—To! Or al-aiz, Xixon? Aizak: Gauza pozkarri bat entzuna natxeok iretzat. Egia al da i eta Berta laster ezkontzen zeratela?

BERTA (*Irriz*).—Bai, bai; illabete onen seigarren igandean.

XIXON (Berta, begiz jan nahi duela, ondorat hurbiltzen zaio).

GREG.—*Errak to, serioski goberna-adi. Aita beharra hemen duk gero... To, edazak, gu bezala, zorta bat zuritik.*

XIXON.—*Ez... Aitak ez nahi...*

GREG.—*Zer nahi dik ba, aitak, gorritik edatea?*

XIXON.—*Ez bat'ere.*

GREG.—*To... Hiri kalte egiteaz beldur duk, dudarik gabe... Ez dik ahatik beldurrik bere buruarentzat... Nauka, to, hoinbertze ez hurbildu neskato horri?... (Xixon Bertari beha dago adorazionean bezala) Pollita duk hori ba?... (Bertak eskua mahainean baitu, Xixonek nahi lioke hartu... Bainan, Bertak kentzen dio) Yes, utzak hori beregisa, muthikoa. Edo hasian hasi, emok potta... *Bainan, ahatik, xuka-aitzit lehenik ezpain horiek* (Xixon ezpaineri torraka).*

BERTA (Eztiki).—*Ez orai, Ttotte... Sarri ba... Ez zozula kasurik egin gizon horri... Gure jelos da... Guk biek arras ontsa elgar konprenitzen baitugu... Ez dea hola?...*

XIXON (Irri zozo batekin).—*Ba, ba, ba.*

BERTA (Xutituz).—*Bon, ni banoa... Errazu, aita, ez ahantz idiak hor ditutzula ferratzeko. (Xixonek segitu nai du) Ez, zu zaude hemen Ttotte... Berritz jinen nuzu... (Xixonek obeditzen du, kara trixtatua).*

GREG.—*Errak, Xixon?... (hunek ez du entzuten ere; boza azkartuz) Errak Xixon. (Xixonek jauzi) Kasu emango duka?... Errak,*

XIXON (*Berta begiz jo nai duala, ondora ur-biltzen zaio*).

GREG.—Tira! portatu adi jator. Aita-bearra emen zegok gero... Edan zak, guk bezela, baxo bat txuritik.

XIXON.—Ez... Aitak ez nai...

GREG.—Zer nai dik, ba, aitak? Gorritik edatea?

XIXON.—Ez bat-ere.

GREG.—To... Iri kalte egiteaz bildur dek nunbait... Ez dik, orratik, bildurrik bere buruarentzat... Tira! Nai al-dek ez urbildu orrenbeste neskatx orri? (*Xixon Bertari begira-begira, adoratzen bezela*) Polita dek eh?... (*Berta'k eskua mai-gañean, eta Xixon'ek artu nai... Bañan Berta'k kendu egiten*). Mutiko! Utzaiok orri pakean. Edo bestela, asia asi, emayok musu... Bañan txuka itzak lendabizi ezpain oyek. (*Xixon, ezpañai igurtzika*).

BERTA (*Goxo*) Orain ez, Ttote. Gerotxuago. Etzayozula kasurik egin gizon orri. Gure inbiri du. Guk biok oso ondo alkar konprenditzen bait-degu. Ez al-da ala?

XIXON (*Irri zozo batekin*).—Ba,... ba,... ba.

BERTA (*Txutituaz*).—Tira. Orain ni banoa. Aizu, aita, ez aztu gero idiak or dituzula perrratzeko. (*Xixon'ek jarraitu nai*) Ez, zu zaude emen, Ttote... Berriz etorriko naiz (*Xixon'ek obeditzen dio, aurpegi trixteaz ezik*).

GREG.—Aizak, Xixon. (*Xixon'ek ez aditzen. Oyukago*) Aizak, Xixon!! (*Xixon'ek jauzi bat*) Entzungo al-didak? Aizak: laister diagu eiza-

laster baitugu ihiziaren idekitzea, pentsatzen diat gurekin jinen hizala... Oyhanean omen duk zer-nahi erbi eta basa-ahuntz.

XIXON (Loriatu).—Pan, pan, pan... Ba, ba...

GREG.—Pan, pan, ba... Nihaurrek postatu-ko hut... Eta, emanen daiat posta bat hauta.

XIXON.—Ba, ba, pan, pan...

AROT.—Ba, pan, pan, bainan gero guretzat boza emaitokotan ahatik...

XIXON (Loriatua).—Ba, ba, ba... Pan-pan.

AROT. (Xutituz).—Bon, hi, erranak erran... Banioak aficha eta paperez artha hartzerat.

GREG.—Ba, eta maiz-maiza askiko dugu elgar ikustia... Bahakizu, bozetan Jainkorik gehiago ez dela, eta edozoinen ahotan gezurra eta urdekeria kurri direla.

AROT.—Zer errango duk?

GREG.—Ez zirea orhoit, azken bozetan, nola zikindu zinituzten?

AROT.—Hala duk hori ere... Azken mementoan ez zakiat nungo ustelak jali zian fama, gauaz, ohez tronpatzeko usaia nuela...

GREG.—Ba... Eta, oraikoan, fama berdintsu bat entzuten baduzu ustelen gain jakinen duzu Gregorio, eyherazainak badakiela irinaz bertzerik nahasten (Irriz).

AROT.—Ihaurrek ikusak... Ahatik, zuhurki joka gaiten.

GREG.—Bego hori ene gain.

AROT.—Bon, heldu hiza, edo hemen gelditzen hiza?

GREG.—Ez... Heldu niz, ni ere... Agur Kattalin.

ren asiera; gurekin joango aiz noski. Basoan bai omen-dek erbi eta basauntz.

XIXON (*Pozez*).—Pan, pan, pan. Ba... ba...

GREG.—Pan, pan, bai... Neronek jarriko aut paradan. Parada eroso bat emango diat.

XIXON.—Ba... ba... pan... pan...

PERRATZ.—Ba, pan... pan... Bañan gero botua guretzat ematekotan.

XIXON (*Pozez txoratzen*).—Ba, ba, ba. Pan... pan...

PERRATZ. (*Txutituaz*).—Tira, i: esanak-esan. Ni banitxeak, paperen eta kartelen kontu artzera.

GREG.—Bai; eta ia maiz-maiz elkar ikusten degun... Ba'dakizu, botu-denboran Jaungoikorik ez dagona, eta edozeñen aotan gezurra ta urdekeria bal-bal ibilli oi dala.

PERRATZ.—Eta zer nai dek?

GREG.—Oroitzen al-zera, igazko botuetan nola zikindu zinduten?

PERRATZ.—Bai, ala dek ori ere. Azken-orduan etzekiat nungo ustelkik banatu zian netzat, gauez oe-trukatzeke oitura nuala...

GREG.—Ba... Oraingoan beste orrenbesterik entzuten badezu ustel oyetakoren batentzat, jakingo dezu Gregorio errotari onek badakiala iriña ez dan besterik ere nahasten (*Irriz*).

PERRATZ.—Ori, eorrek ikusi... Orratik beti ere zuhur ibilli gaitezten.

GREG.—Bego ori nere gain.

PERRATZ.—Eta, bai al-ator? Ala emen gelditzen aiz?

GREG.—Ez; ba'noa ni ere... Agur, Kattalin.

OST.—Ba, agur jaunak. (Xixon) Zu, hemen egoiten zirea?

XIXON.—Ba, Bertak errana...

OST.—Segura da, hori, Berta orhoituko dela zuri erranaz... Bon, bon... Zaude nahi baduzu... Jainkorik ez dela bozetan... Zer gezur behar othe dute jali orai, berritz ere? Ha, zer nahaskerien segida.

PAKO (Sartuz).—Heup, Kattalin. (Mozkor boza abiatua du).

KAT. & OST.—Heldu zirea, zu, berritz ere hunerat? Nun duzu arthaldea?

PAKO.—Ahuntzak ezarri ditut phazkan... Xu-xen ahal da heien zaintzaleak bertze hainbertze egin dezan (Xixoneri) To, hor hiza hi ere. Zer ago?... So nork ontsa finituko othe hien? Ez dik balio, ez... Engoitik, hire eskasarekin beharko duk ibili... Haugi hunarat, zozoa, jar-adi hor.

XIXON.—Ni, ez zozoa.

PAKO.—Ez, ez... Ez haiz arras hala... Hamalaua duk bakarrik eskas, teilaturaino finitua izaiteko... Errazu, Kattalin... Ekazu hunarat edaterat. Urririk dugunaz geroz hotela, bozeri esker, hotelean egongo naiz, jali gabe, bozak bururatu artio... Eta, ez ditut bi hiru mozkortze egingo egun hautan, bainan bat bakarra, buruen buru. Athertu gabe, sakal-alsaka, tripa zolari euria igorrigo diot... Ekazu hunarat edaterat?

OST.—Gorritik edo xuritik?

PAKO.—Ekaitzu pinta bat bederatik. Hola eginen dut bi eskualdeen konplimendua.

OST. (Serbizatuz).—Nago, zuria eta gorria,

ost.—Agur, ba, jaunak. (*Xixon'i*) Zu emen gelditzen al-zera?

XIXON.—Bai; Berta'k esan.

ost.—Bost oroituko da Berta zuri esanaz... Tira ba... Zaude nai badezu... Jaungoikorik ez dala botu-egunetan... Zer gezur zabaldu bear ote dute aurten ere! A! zer nahaskeri berriz ere!

PAKO (*Sartuaz*).—Heup! Kattalin! (*Moskor-eztarri asia*).

ost.—Etorri zera zu berriz ere onera... Nun dezu artaldea?

PAKO.—Auntzak larrean ezarri ditut... Ez al da egoki aien zaitzalleak ere beste ainbeste egin dezan? (*Xixon'i*) To! Or aiz i ere? Zer ago? Nork ongi osatuko auen begira? Alperrik dek... Onezkero ire eskasarekin ibilli bearko dek... Ator onera, zozoa; jar adi or.

XIXON.—Ni, ez zozoa.

PAKO.—Ez, ez. Ez aiz oso ala... Amalau falta dituk, besterik ez, tellaturafio osatua izateko... Aizu, Kattalin: Ekatzu edaten. Ostatua debalde degun ezkerro —botuai eskerrak—, ostatuan egongo naiz, atera gabe botuak bukatu arte. Eta ez ditut bi edo iru moskor-aldi izango egun auetan, bakarra baizik, bañan bururen-burukoa. Atertu gabe, saka-ala-saka, tripari eudia botako diot. Ekatzu onera edaten.

ost.—Gorritik ala txuritik?

PAKO.—Ekatzu bakoitzetik pinta bat. Ola egingo degu bi eskualdeekikoa.

ost. (*Serbitzatuaz*).—Ezin asmatu nago,

zuk nola akomodatzen ditutzun tripa hortan.

PAKO.—Akomodatzen ditut ahal bezala, eta, ez badute akomodatu nahi, biak kanporat igortzen. (Xixoneri) To, har zak, hik ere, baso bat, eta haugi edaterat. Berdin, hire etzeko moltsatik pagatua duk edari hunen erdia.

OST.—Ba, eta bertze erdia, horren etxe beharreko moltsatik.

PAKO.—Nolaz hori?... Gorria da hunena. Zuriekin ez du deus ikustekorik.

OST.—Ha, ez dakizuia berria?

PAKO.—Zer berri?

OST.—Arotzaren alabarekin abiatua dugu, eta, ustez, aferak frango aintzinatua ere dituzte.

XIXON (Loriatua, baietz dio grimaska).

PAKO.—Zeer? Hori ere baduguia? Errak, ez hiza beldur neska itsusi horren emaztetzat hartzeko? Neska hori, muthikoa, bekatu mortala bezen itsusia duk.

XIXON (Samur... Botoilaz jo nahi du Pako). Ez... pollita, pollita, Berta.

PAKO.—Ez nezakela jo, muthikoa... Botoila hori pausa zak... Bon, bon pollita duk beraz... Bertze aldi batez hobeki behatuko zioiat... Deubrua. Aski duk guti, hik ere, botoilaz burutik behera emaiteko... Ha, beraz, Bertarekin duk hire hastapena... Ba, funtsean, hire eskasa haren soberakinak tapatuko dik... Edo, beharbada, dukan on poxi hura galaraziko dauk. Deubrusa baituk neska hori, deubrusa.

XIXON (Botoilaz eskainiz).—Ez, ez da deubrusa.

PAKO.—Muthikoa, botoila hori utzak bere-

zuk zuria ta gorria nola alojatzan dituzun tri-
pa ortan.

PAKO.—Al dedan bezela, Kattalin, al dedan
bezela; eta bearko; eta alojatu nai ez badute,
biak kanpora. (*Xixon'i*) To, artzak ik ere baso
bat; eta ator edatera. Berdin zuen etxeko bol-
tsatik pagatua dek edari onen erdia.

OST.—Bai; eta beste erdia, orren etxe-bea-
rreko boltsatik.

PAKO.—Nola, nola?... Gorria da onenekatik.
Zuriak ez du ezer ikustekorik.

OST.—Ah...? Ez al-dakizu berria?

PAKO.—Zer berri, gero?

OST.—Perratzallearen alabarekin asia degu;
eta ustez, gauzak naiko aurreratuak dituzte.

XIXON (*Pozez, eta kiñuka baietz diola*).

PAKO.—Zer...? Ori ere ba'degu? Aizak; ez
al-aiz bildur olako neska itsusi-puska emazte-
tzat artzeko? Neska ori, motell, bekatu mor-
tala bezain itsusia dek.

XIXON (*Aserre; botillakin Pako jo nai dua-
la*).—Ez, pollita, pollita, Berta.

PAKO.—Ez nazakela jo, motell. Utzak bo-
tilla ori. Tira ba: pollita dek, beraz? Beste
bein obeki begiratuko zeoat... Demoníñua!
Gutxi aski dek ik orratik iñori botillarekin
burutik beera emateko... Beraz, Bertarekin
asia aiz? Etzegok gaizki. Funtsean ire eskasa
aren sobreakiñak ornituko dik... edo ik dekan
ongi-pixka ori arek galeraziko. Deabrusa bai-
dek neska ori, deabrusa.

XIXON (*Botillaz jo nai berriz ere*).—Ez, ez
da deabrusa.

PAKO.—Motell, utzak botilla ori bere lekuan.

gisa... Ez dik balio samurtzea horrengatik. To, ikusten duk baso hau. Hunarat ixurtzen ditiat zuri zorta on bat eta gorri tintta bat bakarrik. Baso huntako edariak zuen ezkontza iduri dik... Zuria bat eta gorria bat'erez baititutuk baso huntan, halatsu izanen zirezte zuek biak... (Irriz) Berta, ba, biligarro pollita... Eta hi zozua... Ha, zer ohandze baliosaren bezpera duzuen.

XIXON (Berriz ere jazarritz).—*Ni, ez naiz zozua.*

PAKO.—*Muthikoa ezti-adi... Ez duk arrazoinik eni jazartzeko. Hi argitzen ari nuk... Apahantziak emaiten ditiat bakarrik hire ezkontzari. Zozua hizela erran diat... Ez daitat erranphika buztana hizela... Baduk hi baino beheragorik.*

OST. (Xixoneri).—*Errazu, Ttote, Berta hor ikusten dut pasatzen... Segidan joliz aurkituko duzu, hura nahi duzunaz geroz ikusi.*

XIXON (Jalitzen da, ukhailua erakutsiz Pakori).

PAKO.—*Ha... Ez dela errex egiaren buruetan sar araztea lur huntan... Bizkitartean, egiak erran daizkot.*

OST.—*Egitik bizi balingo baduzu, hobeko duzu zure aintzineko botoilekin mintzatzea, ezenetz-eta gizonekin. Hobekiago jaliko zira.*

PAKO.—*Ene aintzineko botoilekin mintza?... Zer diotet erranen?... Bat, xuritik da, bertzea gorritik.*

Xuria, aphez arnoa... Horrek badik begitako grazia bat, gorriak ez duena... Bixkotxe-kilako arnoa. Horrek badik ere bere esker,

Ez dik merezi asarretzea orrengatik. To: ikusten dek baso au? Onera ixuriko diat orain txuri-trago on bat, eta gorritik ttanta bat ba-karrik. Baso ontako edaria zuen ezkontzaren iduri bat dek. Zuria bat, eta gorria bat-ere-ez bait-dituk baso ontan; alatsu izango zerate zuek ere biok (*Irriz*). Berta bai, biligarro po-lita... eta i... zozoa. A! zer nolako kabia zuek biok laister egin bear dezutena!

XIXON (*Berriz ere*).—Ni, ez naiz zozoa.

PAKO.—Motell, ez adilla aserre. Ez dek arra-zoirik neri ola ekiteko. Argitzen ari natzaik. Itxura eman besterik ez diat egin ire ezkon-tzaren. Zozoa aizela esan diat; ez diat esan pika-edo aizenik. Ba'dek, beraz i aizen baño beeragokorik.

OST. (*Xixon'i*).—Aizu, Ttotte, or ikusten det Berta pasatzen. Azkar ateratzen bazera, aur-kituko dezu; ikusi naiko dezu noski...

XIXON (*Ateratzen da, ukabilla Pako'ri era-kutsiaz*).

PAKO.—Ah! Bai zail dala egia buruetan sar-arazten lur onetan!... Nik egiak esan diz-kiot...

OST.—Bañan egitik bizi algo bazera, obeko dezu or aurrean dauzkatzun botil oyekin min-tzatu, gizonekin baño. Obekiago aterako zera.

PAKO.—Nere aurreko botillakin mintzatu? Bañan zer esango diet?... Bat zuritik da; eta bestea gorritik...

Txuria, apaiz-ardoa da; eta ba'du begie-tarako grazia berezi bat, gorriak ez duana... Bixkotxoakin artzeko ardoa. Ba'du baita be-

bere garbi, bere handikari berezia. Jateko lehunekin zerbitzatzten dena, norbait direneri noiz-nahi eskain ditakena, ohorezko arnoa, andere gazte triketa, arno xuria.

Hi berritz, gorria... Ilhuna hizelakotz, irri gutiago duk hire begitartean... Erakina izan hizelakotz, motelago eta hilago hiz. Eskas duk biziaren gnirgnira, zalapartaren kirkira... Gai- zo arno gorria. Edozoinen arnoa... Jateko larriekin hi hute usatzen... Egun guzitakoa, mutur zuri eta esku finek guti hute pherekatzen. Ez izanik ere igandetakoa, halere ederra hiz, sanoa, sustengorra, zerbitzari lehial zaharra, arno gorria. Orai, Kattalin zoin iduritzen zau-tzu dela gomeni enetzat: Zuria edo gorria?

OST.—Holakoaren jakin nahian bazira, galdeozu xehetasun Koseri. Horra nun duzun heldu.

KOSE (Kexu).—Agur... Asto madarikatu us-tela. Egiazki bere nausiaren astoa duk ba hori ere?

PAKO.—Zer duk, muthikoa, zer duk hoin keru?

KOSE.—Ez zioiat gehiago kridarik egin, Gregorioren asto zikin horren errefera ukhan gabe...

PAKO.—Hori bertzerik ez baduk, arras aise xuxen ditaken makhur bat duk hori.

KOSE.—Nahiko nitek jakin nola...

PAKO.—Arras errexki... Astoek beren orroa bota aintzin, altxatzen die buztana... Esteka zok astoaren buztanari karga bat... Hola ez

re esker, bere garbi, bere aundi-aire berezia jateko leunekin serbitzen dana, nornairi noiz-nai eskiñi leikiona; ohorezko ardoa; andereño gazte pertxenta... ardo txuria.

Ik, berriz, gorria, illuna aizelako, irri gutxiago dek ire begi-tartean. Irakiña izan aizelako, motelago eta illago aiz; biziaren ñir-ñirra falta dek, zalapartaren kirkirra... Ardo gorri gaizoa! Edozeñen ardoa! Jateko larriekin erabiltzen aute; egun guzitakoa aizenez, muttur txuri ta esku fiñak gutxi perekatzen aute. Bañan igandeetakoa ez izanik ere, ederra aiz, eta osasungarria, euskarria, serbitzari leial zaharra... ardo gorria... Orain, Kattalin; esazu, zein derizkiozun komeni zaidala neri? txuria ala gorria?

ost.—Ori jakin nai badezu, galde ezayozu Jose'ri. Orra nun datorren.

JOSE (*Asarre*).—Agur. Asto madarikatu ustela! Egiazki bere nagusiaren astoa dek bai ori ere.

PAKO.—Zer dek, motell? Zer dek orren asarre?

JOSE.—Ez dezakedala bandorik jo, Gregorio'ren asto zikin orren errestoa entzun gabe.

PAKO.—Ori besterik ez badek, errex zuzendu diteken okerra dek ori.

JOSE.—Errex zuzendu? Jakin naiko nitek nola...

PAKO.—Oso errexki. Astoak, arrantza egitekoan, isatsa altxa oi ditek. Lotu akiok astoaren isatsari edozer karga; eta ezin izango dik altxatu isatsa, ezta arrantzarik egin ere, eta

dik buztana altzatzen ahalko, eta, beraz, bakea emanen dauk bere orroekin.

KOSE.—Nahi nitek bakea eman baheza hire zozokeriekin, ez bainuk batere jostakor... Errazu, Kattalin, arno xorta bat othoi.

PAKO.—Errak, hi, lautsua, hire lau begiez, guk biez baino hobeki ikusten omen baituk, noren alde hiz: zurien edo gorrien?

KOSE.—Kattalin, ekazu hunarat ene arnotik... Eta hik, Galiziano umea hi, hire mota hango jende tzarretik baituk, nahi baduk pixka bat argitu, hail oraintzet pausatu ditiaten murru paperen irakurtzerat.

PAKO.—Zer gezur jalitzen diozkatek boz emaileri hire murru paperetan?

KOSE.—Gu, bakea, ogia eta libertatearen alde gituk, eta jende xehearen alde. Hi, ez zakiat batere ez hizen gu saltzen ari... Mesfidatzen nuk hitaz, hor aphez zerbitzari sartua hizanaz geroz.

PAKO.—Hiri ere, herriko muthil sartuz geroz, galon txar bat bildu dukala eta, ezin ixilduzko kalaxka bat jali zauk aphezen kontra... Aski heien gibel milikari hintzen bizkitartean denboraz, herrian xantrekoa egiten huelarrik... Jaun erretorak, elizako arnotik edaten atzeman-eta, kanpo emanez geroztik, iduri duk iragan denboraren aiphatzeak berak min egiten daukala.

KOSE.—Ez nuk ni behin ere aphezen bandakoa izan... Heiekin nindukelarik ere, boza gorrieri emaiten nian... Jende xehearen alde nuk ni eta segitzen ditiat kazetak.

ikusiko dek nola utziko auen pakean bere arrantzakin.

JOSE.—Ik ematea nai nikek nik pakea ire zozokeri oyekin, ez bait-niagok bat ere jostaketarako... Aizu, Kattalin: ardo-tragoxka bat, arren.

PAKO.—Aizak, i, lauso; ire lau begi oyekin, guk birekin baño obeto ikusten omen dek eta, noren alde aiz? zurien ala gorrien?

JOSE.—Kattalin, ekatzu onera nere ardo ortatik. Eta ik, Galeziano ume orrek, ire jatorria ango kastakoa dek-eta, pixka bat argitu nai badek, ator, oraintxe eman dizkidaten kartel oyek irakurtzera.

PAKO.—Zer gezur botatzen diezute botu-emalleai kartel oyetan?

JOSE.—Gu, pakearen, ogiaren eta libertatearen alde gaituk, eta jende xeearen alde. I, etzekiat ez ote abillen gu saltzen. Ez nauk bat ere fio irekin, or, apaiz-serbitzari sartu aizen ezkerero.

PAKO.—Iri, berriz, erriko mutil sartu aizen ezkerero, galoi txar bat bildu dekala-ta, ezin ixilduzko joale bat aditzen zaik apaizen kontra. Apaizen atze-milikari asko intzan ba i ere oraindik orain, elizan txantre intzanean... Jaun erretorak, elizako ardotik edaten ikusita, kanpora bota indunetik, ba'zirudik lengo denborak aipatzeak berak min ematen dikala.

JOSE.—Ez nauk ni bein ere apaizen aldekoa izan. Apaizen artean nenbillelarik ere, nik botua gorriai ematen niekan. Jende xeearen alde nauk ni, eta irakurtzen dizkiat periodikuak...

PAKO.—Zer segitzen duk kazetetan?

KOSE.—Irakur-aitzik nik bezala eta ikusiko duk jende xehea zer lanjera izigarrian den... Ez badiagu kasu emaiten, gu bezalakoa ez duk bere soineko athorraren jabe ere egonen, ez eta bere emaztearen jabe ere.

PAKO.—To, hi ez haiz segurik hala... Ontsa eginen huke hire begi lautsu horiek emazteari hobeki largatzen bahizkio.

KOSE (Izigarri kexu).—Hik zer duk erraiteko ene emaztearentzat?

PAKO.—Jendek ziotekena deat nik bakarrik aiphatzen. Hire emazteak frango maiz bere erhiko erheztuna ahanzten duela.

KOSE.—Gezurra duk hori... Gezur zikin bat... Saltsa nahasle ustela hi. Hi bezalakoeri, nik, muthurra berotzen zioleiat.

PAKO.—Zer dauk?... Egiak min egiten?... Ez nuk ni penaren egile, bainan erraile bakarrik... Hire makurra nahi baduk xuxendu, jazar-adi grefierari eta ez eni.

KOSE.—Zer erran nahi duk... Mr. Phillippe eta ene emaztia?...

PAKO.—Dudatzen hal haiz zerbaitetaz?... Hemen bakarra hintazke ez lakikenik... Zertako uste duk Grefierak lauzkatu hauela, herriko muthil sartzen?... Hire bertute zorrotzentzat othe?... Edo, hiri herria zaintaraziz, harek hi hobeki zaintzeko?

KOSE (Papotik lotuz).—Gezurra duk hori... Zuri banda zikinak jalikako gezurra...

PAKO (Borokatuz).—Ez duk ene falta phar-

PAKO.—Zer irakurtzen dek periodikuetan?

JOSE.—Irakurri eitzak nik bezela, eta ikusiko dek jende xeea nolako trantzetan bizi dan. Erne ez bagabiltza, laister gu bezelakoa ez dek ezta bere soñeko alkondararen jabe izango, ez eta bere emaztearen jabe ere.

PAKO.—To, eta, i eori ba'al-aiz? Obeto egingo ukek ik ere, ire emaztetxu orri geiago begiratuko baeio.

JOSE (*Oso aserre*).—Ik zer dek esateko nere emaztearentzat?

PAKO.—Nik? Ezer ez. Jendeak diona bakarrik: ire emazte orri maiztxo aztutzen zayola bere beatzeko eraztuna...

JOSE.—Gezurra dek ori. Gezur zikin bat. Saltsa-naastalle ustela i. I bezelakoari nik muturra berotzen zioat.

PAKO.—Zer dek? Egiak min eman al-dik? Nik esan bakarrik egin diat; gauza bera nik ez diat egin. Oker ori zuzendu nai badek, ekin akiok ixkribauari, eta ez neri.

JOSE.—Zer esan nai dek? Jaun Philippe ta nere emaztea...?

PAKO.—Duda egiten al dek oraindik? I bakarrik aiz emen, ori ez dakianik. Zergatik us-te dek ixkribauak lagundu auela erriko mutil sartzeko? ire abillidade zorrotzengatik...? Edo-ta, iri erria zaitueraziz, berak i obekj zaitzeko?

JOSE (*Zintzurretik elduaz*).—Gezurra dek ori!! Zuri-jende zikiñak zabaldutako gezurra...

PAKO (*Burrukan*).—Ez dek nere falta, la-

*tzuerkoan ari bazirezte lanean, herriko mu-
thila eta Grefiera.*

OST.—*Ale... Bakea biek... Eta zoazte kan-
porat... Kanpoan xuri-azue zuen boketa... Os-
tatua errespeta-azue... kanporat.*

KOSE (Borroka jaliz).—*Ustel buhamia... Ga-
lizioa... Hi bezelakoak itho, zintzurretik
itho behar liheie.*

PAKO.—*Utz nezak neregisa... Ez nuk gero
batere hire beldur.*

OST. (Athea hetsi-eta).—*Hau jende errabia-
tsuak... Saltsero tzarrak... Barne huntako ka-
lapita guziak heldu dira edo arnotik edo emaz-
teen gainetik edo politikatik.*

*Bozak ba... Bon, behar direla nahi dut...
Bainan zonbat buru galtze, horien gatik!*

OYHALA

nean erdira ar: bazerate, erriko mutilla eta erriko ixkribaua.

OST.—Ale... Pakea biok! Eta zoazte kanpora. Atadian txuri ezazute zuen lixiba... Errespeta ezazute ostatua... Kanpora!

JOSE (*Burruka utziaz*).—Ustel, ijitua! Galizianoa!... I bezelakoak, ito, zintzurretik eldu ta ito egin bear lituzkek.

PAKO.—Utzi nazak pakean... Ez nauk gero batere ire bildur.

OST. (*Atea ertsiatz*).—Ok dituk jende errabiatsuak! Saltsero tzarrak!! Barru ontako ixkanbilla guztiak beti ortaxetik datoz: edo ardotik, edo emakumeen gañetik, edo-ta politikatik...

Botuak, botuak, bai; bear dirala ba'dakigu... Bañan zenbat buru-galtze botuakgatik!

OYALA

BIGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA. — (Kanpo bat... Sasi, arbol, zinaurri lur meta bat, jartzeko edozoin altura. Oyhala idekitzean entzuten dira urrun ihizi arrabotsak: zakur, tiro, tuta.)

GREG. (Ihiztari bezi agertuz).—*Haugi hurnarat.*

XIXON (Berdin bezi agertzen da).

GREG.—*Hemen izanen duk hire posta... Eta orai, nik emanen daiatzaten xehetasuneri, ontsa beharriak idek-aitzik... Postatuko haiz hementzet, zinaurri lur meta hunen ondoan... Holatzet, to... Ahatik kasu emak zinaurri lur meta hau ez zekadan kitzika, zinaurriak ez daiten jali... Ikusten duk hortzeko bi arbolen arteko xendra hori?... Hor pasatuko diren ihizi guzieren tiro emanen diotek: edo erbi, edo bas-ahuntz, edo basurde.*

XIXON.—*Eta basa lapinak?*

GREG.—*Basa lapineri ere ba... Izanen dituk zakurrekin, urrundik ihizien igortzaleak, postatu ihiztarietarat.*

BIGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—*Basoa... sasi, zugatz, txingurri-mendi bat; exertzeko edozein bixkar.—Oyala idekitzean entzuten dira urrutik eiza-arrabotsak: zakur, tiro, turuta...*

GREG (*Eiztari-jantzian*).—Ator onera.

XIXON (*Berdin jantzia*).

GREG.—Emen izango dek ire parada. Eta orain nik ematen dizkidan txeetasunei, belarriak erne. Ementxe egon bear dek, txingurri-menditxo onen ondoan; olaxe... Bañan kontu txingurri-mendia zirika; bestela txingurriak arrotuko dituk. Ikusten al dek ortxe, bi aritz oyen erditik dijoan bide-txior ori? Origaroko diran eizaki guztiai, tiro! Dala erbi, dala basauntz, dala basaurde...

XIXON.—Eta basa-konejuak?

GREG.—Baita basa-konejuai ere... Adituko dituk, zakurrakin, urrutitik eizkatzen dabiltzanak, eiza paradatara bidaltzeko...

XIXON.—*Eta azeriak?*

GREG.—*Azeriak ere hil aitzik... Bainan ez diat uste azeri hiltzeko lanik ukhanen dukan.*

XIXON.—*Eta azkonak?*

GREG.—*Ba, azkonak ere hil aitzik... Bainan nekhez duk azkonik hemen egun iraganen... Tiratzeko ihiziak izanen dituk bakarrik: basa lapin eta erbiak beharbada zombait basa ahuntz... Agian basa-ahuntz baten hiltzeko xantza izanen duk... Ohore bat lukek hiretzat.*

XIXON.—*Basa ahuntza, pan, pan...*

GREG.—*Ba... Ikusten baduk bat, ez zakela huts egin... Bon, konprenitu duka bederen ontsa... Ean, zer eginen duk, hor pasatzen baduk erbi bat?*

XIXON.—*Pan, pan, pan...*

GREG.—*Ontsa duk... Eta basa lapin bat?*

XIXON.—*Pan, pan, pan...*

GREG.—*Arras ontsa... Eta bas-ahuntz bat?*

XIXON.—*Pan, pan, pan.*

GREG.—*Hale eta hobeki... Uzten hut beraz ihaurre... Ez adila hemendik mugi, ni berritz jin artio... Kasu emotek ahatik zinaurri hauie-ri... Eta ean basa ahuntz bat hiltzen dukan?... Xantza on, to...*

XIXON.—*Bas-ahuntza, pan, pan, pan...*

GREG.—*Ni banioak. (Jalitzen da).*

XIXON (Bakarrik. Urrun entzuten dira be-
thi ihizi burrunbak... Egiten du lehenik to-
kien itzulia. Betbetan erne erne plantatzen
da... Ez, ez da phitsik... jartzen da... Berritz
ere zerbait entzuten duke... Etzinik aztapar-
ka kurritzen du).

BERTA (Gibeletik ixil ixila hurbiltzen zaio,

XIXON.—Eta azariak?

GREG.—Azariak ere bai, il. Bañan ez bait-diat uste, azariak iltzen lanik izango dekanik.

XIXON.—Eta azkonarrak?

GREG.—Baita azkonarrak ere. Bañan nekez izango dek gaur azkonarrrik emen. Tirokako eizak izango dituk bakarrik: basa-koneju eta erbiak; bear bada, zenbait basa-auntz... Agi-danean izango dek basa-auntzen bat iltzeko suerte. Ohore aundia ukek iretzat olako bat.

XIXON.—Basa-auntza, pan... pan.

GREG.—Bai... Ikusten badek bat, ez ezake-la uts egin... Ea konprenditu dekan dana ondo: zer egingo diok, erbi bat pasatzen bada?

XIXON.—Pan... pan... pan...

GREG.—Ondo zegok. Eta basa-koneju bat?

XIXON.—Pan... pan... pan...

GREG.—Oso ondo. Eta basa-auntz bat?

XIXON.—Pan... pan... pan...

GREG.—Ondo baño obeto. Uzten aut, beraz eori bakarrik. Ez adilla emendik mugi iñora, ni berriz etorri arte. Eta kontu, batez ere txingurri-meta oni. Eta... ea basa-auntz eder bat iltzen digukan? Suerte on!

XIXON.—Basa-auntza, pan... pan... pan...

GREG.—Ni ba'nitxeak. (*Irteten da*).

XIXON (*Bakarrik. Urrutira entzuten dira eiza-burrunbak. Egiten du lenda bizi inguruan itzuli bat. Bat-batean erne-erne plantatzen da... Bañan, ez; ez da ezer... Exertzen da... Berriz ere zerbaiten otsa. Makur-makur joaten da soñu dan aldera*).

BERTA (*Atzetik, ixil-ixillik urbiltzen zayo,*

irri trufa batean... Ederki bezti da... oiuhu egi-
ten dio).—*Heup, Ttotte.*

XIXON.—*Ai, ai, ai* (oiuhu karrasia bat bota-
tzen du... Daldaran dago ikharetan bainan,
halere irrigno bat egiten du, Berta ezagutu
eta).

BERTA (Eztiki).—*Zer ari zira hola hemen?*

XIXON.—*Ihizin, ba, ihizin... pan, pan, pan.*

BERTA.—*Hil duzia phitsik?*

XIXON.—*Ez... ez ikusi.*

BERTA.—*Nun duzu hemen ihizien pasaia?*

XIXON.—*Hor... ba, ba, ba...*

BERTA.—*Ho... Nahi zintuzket ihizi zombait
aurthikitzen ikusi... Egoiten ahal niza hemen.*

XIXON (Loriatua).—*Ba, ba, ba.*

BERTA.—*Bon... hementzet jarriko naiz. (Al-
turan jartzen da).*

XIXON (Dudamudakan dago, ean ihizari
edo Bertari duen kasu emanen. Azkenean
Bertaren ondoan jartzen da, arma bere sahe-
tsean pausatuz... Ez daki zer egin... Elgarri
so egiten dute eta irri bizpahiru aldiz... Ber-
tari poxi bat hurbiltzen zaio).

BERTA.—*Hainitz maite nauzia Ttotte?*

XIXON (Loriatua).—*Ba, ba, ba...*

BERTA.—*Nik ere ba zu.*

XIXON (Bertaren ezpainak irakutsiz).—*Zoin
pollita, gorri gorria.*

BERTA.—*Zer?... Ene ezpainak?... Nahi ditu-
tzia zureak ere berdin gorri?*

XIXON (Loriatua).—*Ba, ba, ba...*

BERTA.—*Zaude... Gorrituko dauzkitzut. (Go-
rritzekoarekin gorritzen daizkola) Ean hola...
Luza azu ezpaina. Eta orai hola. Bon ontsa*

irri batean. Ederki jantzia. Oyu egiten dio).—
Heup, Ttotte!

XIXON.—Ai-ai-ai! (*Oyu-garrasi... Dardar dago, ikaraz; bañan alare Berta ezagutzean irriño bat egiten dio*).

BERTA (*Goxo-goxo*).—Zer ari zera ola emen?

XIXON.—Eizan, ba, eizan... pan... pan... pan...

BERTA.—Il al-dezu bat-ere?

XIXON.—Ez; ez ikusi.

BERTA.—Nun dezu emen eizaren pasea?

XIXON.—Or... ba... ba... ba...

BERTA.—Oh! Ikusi nai zinduket eizaren bat iltzen! Egon al-ninteke emen?

XIXON (*Poz-pozik*).—Ba... ba... ba...

BERTA.—Ementxe jarriko naiz. (*Bizkartxo batean*).

XIXON (*Duda-mudan dago, nori kasu egin: eizari, ala Berta'ri. Azkenean Berta'ren ondoan jartzen da, bere arma sayetsean duala. Ez daki zer egin. Elkarri begiratzen diote eta irri egiten bi edo iru aldiz... Berta'rengana urbiltzen da pixka bat*).

BERTA.—Asko maite-al-nauzu, Ttotte?

XIXON (*Pozez*).—Ba... ba... ba...

BERTA.—Nik ere bai zu.

XIXON (*Bertaren ezpañak beatzez señaletuaz*).—Ze polita, gorri-gorria!

BERTA.—Zer? Nere ezpañak? Nai al-dezu zu-reak ere berdin gorritzea?

XIXON (*Pozez*).—Ba... ba... ba...

BERTA.—Zaude. Gorrituko dizkitzut. (*Gorritzekoarekin gorritzen dizkiola*) Ia nola? Luza-tu itzazu ezpañak. Orain ola. Ondo dago... Bi-

da... Biziki muthil pollita zira. (Loriatua, Xixon ez dauke grimaska... Berritz ere, elgarri so eta irriz egoiten dira aphiur bat... Azkenean, Xixonek, nahi lioke Bertari eskua hartu, bainan hunek ez konprenituarena egiten dio.) Zer nahi zinuen ene eskutik? Zer duzia?... Zerbait eskas?

XIXON (Irri xoro bat).—Behatzak ere gorri... Ba, ba...

BERTA.—Ba, bon... behatzak ere ezpainak bezala nahi dituzia? Ekaitzu, gorrituko daukitzut... (Gogotik gorritzerat uzten du, grimas batzu egiten dituela. Gorritze horrek kilikatzen balu bezala).

XIXON (Ez baitauke gehiago, azkenean eskua hartzen dio eta han sekulako pottak emaiten).

BERTA (Eskua erretiratuz, eztiki).—Alo... Ez zatzula esku horrekin ezpainak hola hunki... Gorri guzia kentzen baituzu. (Xutituz) Bon, ni aintzinarat joanen niz... Zuk aski duzu ihizia segitzea... Ha, zonbat zinaurri diren hemen... So egizu, zinaurri lur meta harrotu dugu. Kasu emozute alimale tzar hoieri... Bon, adio. (Urruntzen da... Xixon jarraikitzen zaio) Ez, ez... Zu zaude hemen... Egin azu ihizi... Agian basa ahuntz bat hilen ahal duzu... Hura laitate ene plazerrik handiena.

XIXON.—Bas-ahuntza, ba, ba... Pan, pan.

BERTA.—Sarri artio beraz.

XIXON (Trixtatua egoiten da ixtant bat... Arma hartzen du... Zinaurriak abiatuak ditu gorphutza gohora... Zalapartaka heien kontra lotzen da).—Phuuu... zinaurriak... Ai, ei, ai...

ziro mutil polita zaude. (*Pozez, Xixon'ek ez du egiten keñurik... Berriz ere elkarri begira eta parrez egoten dira pixka bat... Azkenean Xixon'ek Berta'ri eskua artu nai lioke; bañan Berta'k ez-aituarena egiten dio*). Zer nai zenduan nere eskutik? Zer dezu? Zerbait falta?

XIXON (*Irri txoro bat*).—Beatzak ere gorri... Ba... ba...

BERTA.—Ondo da... Beatzak ere, ezpañak bezela nai dituzu? Ekaitzu; gorrituko dizkitzut beatzak ere. (*Gogotik gorritzen uzten dio, keñu batzuek egiten dituala... gorritze orrek kilikatzen balu bezela*).

XIXON (*Gorritzea bukatzean, eskua artzen dio, eta an sekulako musuak ematen*).

BERTA (*Eskua erretiratu, eztiki*).—Tira... Etzazula esku onetan ezpañik igurtzi... Gorri guztia kentzen dezu. (*Txutituaz*) Tira... nik aurrera joan bear det. Zuk segi ezazu eizean... Ah! bañan zenbat txingurri da emen? Begira, begira! Txingurri-meta arrotu degu. Kontu egiezu animalari tzar oyei... Eta agur. (*Urrutiratzen da. Xixon'ek jarraitzen dio*). Ez, ez. Zaude zu emen. Eglizu eiza. Agidanean basaauntzen bat ilko dezu. Uraxe litzake neretzako pozik aundiena.

XIXON.—Bas-auntza, ba... ba... pan... pan...

BERTA.—Laister arte, beraz.

XIXON (*Trixtatua dago pixka batean... Arma artzen du... Txingurriak asiak ditu gorputzean gora... Asten da zalapartan ayen kontra*).—Phuuu! Txingurriak... Ai, ei, ai! Txingurri gorriak...

Zinaurri gorriak... (Betbetan entzuten da ahuntz baten marraka... Mee... Bere arma espaldan, erne ernea plantatzen da... Berritz ere marraka batzu... Eskuin eta ezker dabila, ihizia hobeki ikusi beharrez... Azkenean ba, noizbait, tiro emaiten dio).

PAKO (Oihu alimale batzuetan, agertuz).—*Eheup... Zer da botiga hau?... Nungo asto handia ari da hor tiroka?... Ha, hi hintzana?... Zozo buztan umea, hi. Noizetik hunarat etxe ahuntzak ihizatzen dituk. He?... So egizak zer egin dukan?... Jaun erretoraren pittika hil duk... Pittika ba hil... So egizak... Nahi dukan bezala afera xuxenduko duk jaun erretorarekin... Ez dik balio ez, hor harrítua egoitea tente potente, hire arma tzarrarekin... Hasteko ekak eni arma hori... Ez haiz hi on arma baten ibiltzeko.*

XIXON.—*Arma, arma, ez... Arma enia...*

PAKO (Bortxaz kentzen diola).—*Ekarrak ba hori hunarat... Haizen bezalako tipul burua... Eta, arma hau berritz bildu nahi baduk, askiko diok aitari galdatzea... Nik, haren eskue-tan ezarriko diat... Hik egin zak nahi dukana.* (Urruntzen da).

XIXON (Bakarrik... Bulta bat egoiten da, grimaska, zozotua bezala... Gero lotzen da hatzka...).—*Ha, zinaurria, zinaurri gorriak.* (Bere buruari zinaurri kentzen ari da bulta bat, batean "zinaurriak" aphaletik diola, bertzean orhoaz. Zinaurrieri buru egiteko kentzen ditu emeki, soineko arropak oro, salbu gal tzak... Azkenean, bethi orhoaz, badoa sasi gibelerat eta sasi gainetik, barneko alderat aur-

(Bat-batetan uuntz baten marraka entzuten da... Mee... Arma beso-ondora jasoz, erne-erne plantatzen da... Berriz ere marraka bztzuek... Ezker eta eskui dabil, eiza obeto ikusi-bearrez... Azkenean, noizbait, or ematen dio tiro bat).

PAKO (Oyuka agertuaz).—Eheup!! Zer nahasketa da au? Nungo asto aundia dabil emen tiroka?... Ah! i al-intzan? Ik izan bear uan zozo-buztan-ume orrek. Noiztik ona eizatzen dituk etxe-auntzak? eh? Begira zak zer egin dekan. Jaun erretoraren antxumea il dek... Antxumea il, bai. Begira zak. Nai dekan bezela zuzenduko dek oker au jaun erretorarekin... Alperrik dek or arritua egotea tente potente, ire arma-tzarrarekin... Ekatzak orain arma ori... I ez aiz on, arma eskuetan ibiltzeko.

XIXON.—Arma, arma, ez... Arma nerea...

PAKO (Indarrean kentzen dio).—Ekatzak arma ori onera... Aizen bezelako tipula-burua i. Eta, arma au berriz eskuratu nai badek, eskatu ezayok aitari. Nik aren eskuetan ezarriko diat... Orain egin zak nai dekana. (Joatenda).

XIXON (Bakarrik. Pixka batean geldirik, kenñuka, zozotua bezela... Gero asten da azka...). Ah! Txingurriak, txingurri gorriak. (Bere buruari txingurriak kendu-bearrez ari bedi pixka batean, orain "txingurriak" aopgan diola, eta orain oyuka... Obeto astintzeko, kentzen ditu, poliki-poliki soñeko erropa guztiak, galtzak ez beste... Azkenean —beti oyuka— an dijoa sasi-atze batera; eta, sasi-gañetik bota-

thikitzen ditu galtzak ere... Haren oihuak urrunduz, galtzen dira).

GREG. (Aphur baten buruan agertuz).—*Yes... Tiroa zeri eman othe zio, muthiko zo-
zo horrek? Ez zian ba hemen ihizi tiratzeko
arrozoinik, gure sukaldean baino gehiago...
Gisa hartarat postatua ere nian eta... Yes...
Nun da gure gizona? Ez gehiago bere postan
ere?... Ez direa hauk haren arropak? Phuu...
Hau zinaurriketa... Yes... kartutxa kargat^uak
ere lurrerat aurthikiak? Zer gertatzen othe da
hemen?*

AROTZA (Ihiztari beztia agertuz).—*Ta?... Zer
hil dik?*

GREG.—*Deus ez dut komprenitzen... Bere
arropak hemen ditu, bainan bera ez da he-
men... So egizu puska hauieri? Zinaurritz
ithoak dira?*

AROT.—*Ez ahal zaiok makurrik bederen ger-
tatu tetele horri?*

GREG.—*Nik dakita? Dei dezagun... Errepus-
tarik emanen othe duen... (Oihuz) Xixon, Xi-
xon Ttotte, O Ttotte (bat'er'ez errepusta-
rik) Jes... Zer da?... Hila othe?... Ean deus
hatzik ez dugun ba arrapatuko... (Harritua,
sasi gainetik so) So egizu... So egizu horra-
rat... Jaun erretoraren puttika hila... (Jali-
tzen da).*

AROT. (Sasi gainetik mintzo kanporat).—*Nola hila duk hori?*

GREG. (Kanpotik).—*Tire bat ukana du, bu-
lharrean, hurbildik, so egizu, tiroa oso osoan
hartua du.*

AROT.—*Hauze duk mixterioa... Arropak he-*

tzen ditu barrura galtzak ere; eta aren oyuak gero ta urrutiago galtzen dira).

GREG. (*Pizka baten buruan agertuaz*).—Jes... tiroa zeri eman ote zioz mutiko zozo orrek? Etzian, ba, emen eizarik tiro egiteko, gure sukaldean baño geyago. Alako moduko parada ere orretxegatik eman zioat-eta... Jes... Eta nun da gañera gure gizona? Bere paradan ere etzegok... Ez al-dira gañera oek aren soñekoak? Phuuu! Au txingurriz!... Jes... eta kartutxo kargatuak ere lurrera bota-ta... Zer gertatzen da, ordea, emen?

PERRATZ. (*Eiztari-jantzian agertuaz*).—Ta?... zer il dik?

GREG.—Ez det ezer konprenditzen. Soñekoak emen ditu, bañan bera ez da emen. Begira eiyezu puska oyei. Zearo txingurriz jo siak.

PERRATZ.—Ez al-zaiok ezer okerrik gertatu baldinbetan, tetele orri!...

GREG.—Edozenek daki. Dei dezagun, erantzunik ote-dan... (*Oyuz*) Xixon! Xixon!! Ttote! Oh Ttote!! (*Bañan erantzunik ez*). Jes... Illa ote-da, ba? Ez ote-degu, ba, aren oñ-atzik bat ere arkitu bear? (*Arritua; sasi-gañetik begiratzen du*)... Begira zazu, begira zazu orre-ra... Jaun erretoraren antxumea illa. (*Eta joaten da sasi-atzera*).

PERRATZ. (*Sasi-gañetik kanpora izketan*).—Nola zegok illa?

GREG. (*Kanpotik*).—Tiro bat, bertatik-bertara emana du bularrean; begira, tiroa bete-betean artua du.

PERRATZ.—Auxe dek mixterioa! Soñekoak

*men eta jabea eskas... Armarik ez eta pittika
armaz hila Deubrukeria zerbait badukek hor.*

GREG. (Berritz agertuz).—*Ez dute ba ihiz-
taria zombait kabala basek bederen garbitu...
Ean baden nihun odol hatzik. (Lotzen dira
miaka).*

AROT.—*xt, xt... Bi gizon hor eldu; gorde
gaiten to.*

PAKO (Aphur baten buruan agertuz bizi
bizia mintzo).—*Ba, jaun mera... Horra nun
zen postatua, ni horraxetan nintzan ahuntz
alhatzen... Eta, huna nundik hil duen pittika.
Doietarik egin du, ez bainau nihaur arrapa-
tu... Holakoeri, ez litzaikete ihiztatzeko pape-
rarik eman behar. Arma eskutik kendu diot,
eta zure ganat jin naiz segidan.*

MERA.—*Ha, trixtea... Bainan nun da be-
ra?... jes, hauk ez direa haren arropak?...*

PAKO.—*Nik ez dakit norat jo duen.*

MERA.—*Bainan, bainan... Zer gertatzen da
hemen?... Hemen bada zerbait behar gabeko...
Kartutzak eta galtzak ere hor... Bainan, nor
da hemen gordea?*

AROT. & GREG. (Agertuz).—*Gu... (Tira ala ka-
lapitan har ditela).*

MERA.—*Zer ari zirezte hemen?... Nun du-
zue ene semea?*

AROT.—*Eskandala... Eskandala bat da he-
men gertatzen dena... Gorri zikinak zuek...
Zer egin dautzue aphez gaixoak, hola haren
pittikari jazartzeko.*

MERA.—*Zer derasak?... Gu, zuek bezen adix-
kide gituk erretorarekin.*

emen, eta jabea falta; armarik ez, eta antxumea armaz illa. Ba'dek emen deabrukeriren bat.

GREG. (*Berriz agertuaz*).—Etzuan, ba, gure eiztaria zenbait basa-piztik garbituko... Ea ba dan iñun odol-markarik? (*Biok lurrean billa*).

PERRATZ.—Xt... xt... Bi gizon zetozek; ez kuta gaitezen.

PAKO (*Piñka baten buruan agertuaz bizi-bizi mintzo da*).—Bai, alkate jauna: orra nun zuan bere parada; ni aruntzaxeago nengoan auntz-zai... Eta orra nundik il duan antxumea. Doi-doya ez nau arrapatu neroni ere tiroak... Olatkoeri ez litzayeke eman bear eizarako pape-rarik. Arma eskutik kendu diot, eta nere arekin zugana joan naiz berealakoan.

ALKAT.—Ah! gizagajoa! Bañan nun da be-ra?... Jes... Oiek ez al-dira aren soñekoak?

PAKO.—Nik ez dakit nora jo duan.

ALK.—Bañan, bañan... Zer gertatzen da emen? Emen ba'da zerbait bear-gabeko. Kartutxoak eta galtzak ere or... Bañan nor da emen gordea?

PERRATZ. *eta* GREG. (*Agertuaz*).—Gu... (*Ager-tu-orduko, aserre asi bitez*).

ALK.—Zer ari zerate zuek emen? Nun de-zute nere semea?

PERRATZ.—Eskandalua... eskandalu bat da emen gertatzen dana. Gorri zikiñak, zuek!... Zer egin dizute zueri apaiz gizagajoak, aren antxumeari zuek **ola ekiteko?**

ALK.—Zer diok, ordea? Gu, zuek bezain adiskide gaituk gero erretorarekin...

AROT.—Zuek, erretorarekin adixkide?... Ba, deubrua ur benedikatuarekin bezala.

MERA.—Ikusiko diuk nork bilduko duen haren boza?

AROT.—Ba segur haren pittikaren tirokatzaileek.

MERA.—Haren boza bilduko die, elizarentzat zerbait egiteko kapable direnek.

AROT.—Zer nahitako zuen burua kapable daukazue, bainan nun ditutzue zuen obrak?

MERA.—Gure obrak ageri ahal dituk... Hala ez hiza ohartua, hire etxe aintzinetik ithurri bat eskastu dela.

AROT.—Ustel zikina hi. Zirtzilkeriazko obrak egiteko, ba, lehena hitz... Joan beharko duk erroz gora oraikoan... Eta ikusiko diogu orduan zer eskastuko den hire botigaren aintzinetik?

MERA.—Zer egingo duk ene botigaren kontra?

AROT.—Orhoit adi, herrian komitateak eskas ditugula.

MERA.—Horiek dituka ene botigaren kontra ezarrigo. Jakin zak, hik ez badituk ezartzen erran lekuan, heldu den astetik beretik behar dena eginen duela, heien bertze nunbait ezartzeko... Arotzteian ez baduk hol-hola usainik aski, hartarik zerbitzatuko haukula nasaiki eta merke.

KOSE (Sartzen da hats hantua).—Ha, hemen zirea.

MERA.—Zer da?... Zer gertatzen da?...

PERRATZ.—Zuek? Erretorarekin adiskide? Bai, deabrua ur bedeinkatuarekin bezela.

ALK.—Ikusiko diagu nonk eramango duan aren botua.

PERRATZ.—Jakiña, ba; aren antxumearen tirokatzalleak.

ALK.—Aren botua eramango ditek, elizarentzat zerbait egiteko gauza diranak.

PERRATZ.—Zer-naitarako gauzatzat daukatzute zuek zuen buruak; bañan nun dituzute obrak?

ALK.—Gure obrak ageri asko dituk... Ez al-aiz konturatu oraindik, ire etxe-aurretik iturri bat falta dala?

PERRATZ.—Ustel zikiña, i! Zirtzilkeriazko obrak egiteko bai, lengoa bera aiz i; bañan oraingoan ankaz-gora joan bearra aiz. Eta ikusiko diagu zer faltako dan orduan ire botikaren aurretik.

ALK.—Zer egin bear dek nere Botikaren kontra?

PERRATZ.—Ba'dakik errian komunak falta ditugula.

ALK.—Komunak ezarri bear al-dituk nere Botikaren aurrean? Jakin ezak ba, ik ezartzen ez badituk komun oyek esandako lekuan, datorren astetik bertatik nik egingo dedala bear dana, beste nunbait ezartzeko. Perrategian len ez badek usairik aski, artatik **serbituko** ugula ugari ta merke.

JOSE (*Sar bedi asnas-larritua*).—Ah? Emen al-zera?

ALK.—Zer da?... Zer gertatzen da?...

KOSE.—*Ttote, zure semea... Ttote, bilhuz gorri...* (Bethi hats hantua, ezin erranez).

MERA.—*Zer?*

KOSE.—*Ba, harra bezala larru-has* (hats hantua).

MERA.—*Bainan, mintzatuko zirea garbiki.*

KOSE.—*Ez dakit nolaz eta nundik... Zure semea plazarat agertu da larru gorrian... zakurrak saingaz eta haurrak harrika lotu zaizko, eta tira hala hunarat buruz ihesi jo du... Jende multxo bat haren ondotik gabiltza.*

MERA.—*Molde hortan muthikoa, bainan zer deubru gertatu zaio, orai berritz trixte horri?*

KOSE.—*Ez dakit... Gehiago dena, ezpainak eta behatzak gorri gorrituak omen ditu. Nik uste, arrunt burua galdua duke...*

MERA.—*Bainan, nun da orai?*

KOSE.—*Ez dakit... Eskualde huni buruz hartu du, eta presuna handi zombait haren gibeletik abiatu gira.*

MERA (Arotzari eta Gregoriori).—*Ustelak... Baliatu zirezte egunaz, zerbait jikutria tzar muntatzeko. Gutaz trufatu nahi izan duzue, haur gaixo baten medioz... Bainan kasu ondorioeri... Kasu erreferari.*

AROT.—*Guk zer falta dugu hire semea burxoroa balinbaduk? Hura xuxen zak eta ez gu.*

MERA.—*Holako elhek beharri ondoko bat merezi likeie...*

AROT.—*Emak hire beharri ondokoa, kapa-ble balinbahaiz.*

MERA.—*Gogotik ukhan hezakek, ez banintz eskuen zikintzea beldur.*

JOSE.—Ttotte, zure semea... Ttotte, larru-gorrian... (*Ezin esan, arnas-larri*).

ALK.—Zer?

JOSE.—Ba, arra bezela, larru-gorrian... (*Arnas-larri*).

ALK.—Bañan mintzatuko al-zera garbi?

JOSE.—Ez dakit nola eta nundik... Zure semea plazan agertu da larrugorrian... Zakurrak zaunkaz, eta umeak ondotik lotu zaizkio, eta alegin guztian onuntz-aldera igesi jo du. Eta jende-pilla bat aren ondotik gabiltza.

ALK.—Era ortan mutilla...; bañan zer deabru gertatu zayo orain berriz gizagajo orri?

JOSE.—Ez dakit... Bañan oraindik geyago: ezpañak eta beatzak gorri-gorrituak omen ditu. Nik uste arront burua galdu duan edo...

ALK.—Bañan, nun da orain?

JOSE.—Ez dakit. Eskualde ontara artu du, eta gizon batzuek ere ondotik dijoazkio.

ALK. (*Perratzalleari eta Gregorio'ri*).—Ustelak!... Eiza-egunaz baliatu zerate, olako saltsa prestatzeko; guri parra ta burla egin nai izan diguzute aur gizagaixo bat bitarteko artuta. Bañan kontuan izan itzazute ondorenak; etorriko dituk errestak.

PERRATZ.—Guk zer kulpa diagu ire semea iñozua baldin bada? Zuzen zak bera, eta ez gu.

ALK.—Olako izketak belarrondoko bat me-rezi likek...

PERRATZ.—Eman zak, gauza ba-aiz.

ALK.—Bai emango pozik, eskuak zikindu-bildur ez banintz.

AROT.—*Jakin-tzak arotzak baduela hi baino asko beharri luze azkarragoen eskolatzeko usaia.*

KOSE.—*Te, te... Huna nun diren. (Agertzen dira Xixon eta Berta... Xixon beztitua da Bertaren gaineko arropez).*

BERTA.—*Hemen zabilan bilhuzia, iheska... Bildu dut, ondotik joanik... Eta, ene arropez ahal bezala tapaturik, etxerat ekharki nuen.*

MERA (Kexu).—*Errak, Ttote, nun habila hola hemen?... Zer dituk manera horiek?*

XIXON (Zinaurriak erakutsiz ikharan).—*Phuuu... Zinaurriak... Zinaurri gorriak...*

MERA.—*Hik, hei, hil duka jaun erretoaren pittika?*

XIXON.—*Ba,... pan, pan, pan...*

PAKO.—*Segur horrek hil baitu; ikusi ahal dut aski ontsa...*

KOSE.—*Zonbat pinta arno edanak hintuen hori ikusi aintzin?*

PAKO.—*Ez aski, hiri lau begien heina bai zik ez ikusteko.*

MERA (Xixoneri).—*Bainan, trixtea, erranen dautaka zerendako hizan arroparik gabe?*

XIXON.—*Zinaurriek, pik, pik... Nik arropak kendu...*

MERA.—*Eta ezpainetako eta eskutako gorri hori nundik dituk?*

XIXON (Irri goxo batekin, Bertari so egiten dio).

MERA (Arras kexu).—*Mintzatugo hiza?...*

PERRATZ.—Aizak: jakin bear dek, perratza-
lleak ba'degula oiturarik, i baño belarri-luze
azkarragoak ere ezitzeko.

JOSE.—Ixo, ixo... orra nun datozen. (*Ager-
tzen dira Xixon Berta'ren gañeko soñekoz
jantzirik*).

BERTA.—Emen zebillen larru-gorrian, ige-
si... Ondotik joanik bildu det. Eta nere soñe-
koz al bezela estalirik, etxera nekarren orain-
txe.

ALK. (*Asarre*).—Ttotte, bañan Ttotte, nun
enbillen ola? Zer dek ibillera ori

XIXON* (*Txingurriak erakutsiaz, ikaraz*).—
Phuuu... txingurriak... txingurri gorriak...

ALK.—Ik il al-dek jaun erretoraren antxu-
mea?

XIXON.—Ba... pan... pan... pan...

PAKO.—Bai, bai; orrek il du; neronek ikusi
det ongi asko.

JOSE.—Zenbat pinta ardo eranak intukan
ori ikusi-aurretik?

PAKO.—Ez asko; iri aurpegian lau begi ikus-
teko aña besterik ez.

ALK. (*Xixon'i*).—Bañan, gizagajo-gizagajoa:
esango al-didak zergatik agoan señekorik ga-
be?

XIXON.—Txingurriak, pik, pik... Nik arro-
pak kendu...

ALK.—Eta ezpañetako eta eskuetako gorri
ori, nundik dituk?

XIXON (*Irri goxo bat ezpañetan, Bertari be-
giratzen dio*).

ALK. (*Oso asarre*).—Mintzatuko al-aiz?...

Esplikatuko dautaka, nolaz hizan hola gorritua eta bilhuzirik?

XIXON (Ikharan).

BERTA.—*Othoi, ez zazula gaizki erabil... Ez da hunen falta hola balinbada.*

PAKO.—*Dudarik gabe bilhuzi da, berogi zuelakotz.*

MERA (Bixi bixia).—*Zuk, zure mihia atxikazu zuretzat... Nehork ez dautzu phitsik galdatzen.*

PAKO.—*Ene gogoaren agertzeko dretxo ahal dut. Jes... Nik arras ontsa konprenitzen dut gizon bat bilhuz ditakela, odola kaldan duelakotz.*

KOSE.—*Ba, holako usaiak baititu horrek.*

PAKO.—*Holakoeri ohartzeko hobia hiz, hi ere, hire emaztea zaintzeko baino.*

KOSE (Izigarri kexu).—*Hik, zer duk, orai ere, erraiteko ene emaztearentzat?... Hi, jende zikintzale ustela (papotik lotzen zaio eta jalitzen dira kanporat).*

PAKO.—*Galda xehetasunak, Mr. Philipperi... Galdazkik hari. Ai, bakia emak...*

MERA (Kexu).—*Emozu hiltzekoa... Kali-azu, nahasi hori... Edo ezar-azu preso.*

AROT.—*He, polliki, polliki, gu ere hemen gira gero.*

MERA.—*Hi hail asto ferratzerat.*

AROT (Kexu, papotik lotzen zaio).—*Asto ferratzerat?... He?... Asto ferratzerat... Haugi hunarat ferrá beharretan bahiz... (Kanporat pusatzen du) Emanen dauzkiat nik ferrak... Eta ez zangotan, bainan bertze nunbait.*

Adieraziko al-didak nola agoan ola gorrituta eta larru-gorrian?

XIXON (*Ikaraz*).

BERTA.—Arren: etzazula gaizki erabili mutila. Ez da onen errua.

PAKO.—Dударik gabe soñekoak erantzi ditu, berotxo zalako.

ALK. (*Gizon-gizonki*).—Zuk gorde ezazu zure mingaña zuretzat. Ez dizu inork ezer galdetu.

PAKO.—Eskubide det ordea nere gogoia agertzeko. Nik ederki konprenditzen det gizon batek soñekoa kendu dezakela odola berotxo daukanean.

JOSE.—Bai; olakoxe oiturak ditu orrek.

PAKO.—Olako gauzak jakiteko ohea aiz i ere, ire emaztea zaitzeko baño.

JOSE (*Izugarri asarre*).—Ik zer dek, orain ere esan bearrik nere emaztearentzat? I inor-zikintzalle ustela (*Lepotik eltzen dio, eta ateratzen dira kanpora*).

PAKO.—Galdetu ezaizkiok txeatasunak jaun Philipe'ri. Galde ari... Ai! utzi nazak pakean...

ALK. (*Asarre*).—Il ezazu! Akaba ezazu, zital ori... edo artu ezazu preso.

PERRATZ.—Eh! Polliki, polliki; gu ere emen gera gero.

ALK. I oa asto-perratzera.

PERRATZ. (*Asarre; lepotik eltzen dio*).—Asto-perratzera? eh? asto-perratzera? Ator onera, perra-bearrean ba-aiz... (*Kanpora bultzatzen du*). Jarriko dizkiat nik perrak... eta ez anketan; beste nunbait baizik.

PAKO (Kampotik).—*Ai, ai, ai... Hatsu, hatsa... Bizia, bizia... Zatozte laguntzerat.*

GREG. (Jaliz).—*Errak, Kose, utz ak hori beregisa edo urkhatzen hut gero?*

KOSE.—*Utz nezak. Utz nezak... Orhoit adi herriko muthila naizela.*

GREG.—*Ba, eta ni herriko eyherazaina.*

PAKO.—*Herriko muthil haiz, bainan ez luzarako. (Kalapitak kanpoan urrunduz ezitzen dira).*

XIXON (Ikharan dago kalapitalariari so)

BERTA.—*Beldur zirea, Ttotte?*

XIXON (Daldaraka).—*Ez dakit.*

BERTA.—*Ez izan beldur... Hau deitzen da: POLITIKA.*

XIXON.—*Pol, poli...*

BERTA.—*Politika ba... Zonbaitentzat hauze da... Ez duzia phitsik konprenitzen politikan?*

XIXON (Luzaz buruarekin).—*Ez...*

BERTA.—*Ez zira bakarra. Hanitzek zu baino gehiago ez dute konprenitzen.*

XIXON (Ahoa zabalik).—*Haa...*

BERTA.—*Bainan, halere zerbait dute saltzatzzen.*

XIXON (Bethi aho zabalik).—*Ha, ha...*

BERTA.—*Eta, hori politika egitea dute deitzen...*

XIXON (Eskandalaz joa bezala).—*Ho...*

OYHALA

PAKO (*Kanpotik*).—Ai, ai, ai! Itoko nauela!
Ilko nauela! Atozte laguntzera!!

GREG. (*Atereaz*).—Aizak, Jose: utzaiok orri pakean, edo-ta urkatuko aut.

JOSE.—Utzi nazak; utzi nazak!... Ba'dakik gero erriko mutilla naizela.

GREG.—Bai; eta ni erriko errotaria.

PAKO.—Erriko mutil aiz; bañan ez luzarorako.

(*Zalapartak kanpoan gero ta ixillago*).

XIXON (*Ikaraz dago zalapartalariei begira*).

BERTA.—Bildur al-zera, Ttotte?

XIXON (*Daldaraz*).—Ez dakit.

BERTA.—Ez izan bildur... Auxe da POLITIKA.

XIXON.—Pol, poli...

BERTA.—Politika, bai. Zenbaitentzat auxe da Politika. Zuk ez al-dezu batere konprenditzen politikan?

XIXON (*Astiro, buruarekin*).—Ez...

BERTA.—Ez zera zu bakarrik. Askok eta askok ere ez du geiago konprenditzen.

XIXON (*Ao zabalik*).—Aaah!...

BERTA.—Bañan, ala ere zerbait saltsatzen dira...

XIXON (*Beti ao-zabalik*).—Ah! ah!...

BERTA.—Eta orrixe esaten diote "politika egitea".

XIXON (*Eskandaloz jota bezela*).—Oh!...

OYALA

HIRUGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—Bozkatzetako barnea, boz egu-
nean. Untziaren zain dagozi, eskualde ba-
tetik: Mera eta Mr. Philippe. Bertzerik Aro-
tza eta Gregorio. Erdian untziaz artha dau-
kala: Kose. Denak zainetan dira. Kanpotik
entzuten dira tuta batzu.

MERA (Kexu).—*Tutalariak eta jatslariak
muntatu ditutzue gu hemendik kanporat se-
gitzeko... Ikusiko diogu nor izanen den he-
mendik kampo, gu edo zuek.*

AROT.—*Tuta eta jatslariak, ba muntatu di-
tugu, bainan, zuek bezala egiteko... Zertako
hasi zirezte? (Xurien aldetik, athe bat ideki-
tzen da... Bandera ttipi bat xuria agertzen,
zonbait jats ere eta tutak entzuten dira...
Oihu batzu ere: Fuera gorriak, huuu... go-
rrien aldetik, bertze hain bertze egiten dire).*

MERA (Xutituz ete exarpa soinean ezarriz).
Bozetako sala hau errespetatua izan dadien,

IRUGARREN GERTALDIA

JOKA-LEKUA.—*Botuetako etxe-barrua, botu-egunean. Ontzia zaitzen; eskualde batetik: Alkatea eta jaun Phelipe; eta bestetik: Perratzallea eta Gregorio. Erdian erriko mutil bezela ontziaren kontuan, Jose. Danok urdu-ri daude. Kanpotik turuta-soñu batzuek entzuten dira.*

ALKATE (Asarre).—Turutalariak eta zalaparta-zaleak moldatu dituzute, gu emendik botatzeko asmotan... Ikusiko diagu nor joango dan emendik kanpora, gu ala zuek.

PERRATZ.—Turutalariak eta zalaparta-zaleak eratu ditugu, egia; bañan zuek egiña egiteagatik... zertako asi zerate?

(Txurien aldetik ate bat idekitzen da. Eta bandera txiki bat, txuria, agertzen da; eta zenbait turuta eta jats entzuten dira. Orro batzuek ere bai: "Beera gorriak!". Uuuuuh!". Gorrien aldetik beste ainbeste).

ALK. *(Txutitu, eta alkate-banda soñean ezarriaz).*—Botutako sala au errespetatua izan

galdetzen dut orori, xuri eta gorrieri, kanpoan egon daiten arrabotslari guziak.

AROT. (Gregoriori ahapetik).—*Zonbat dituk oraino boza eman beharrak?*

GREG.—*Bost... Jiten badira segurik.*

AROT.—*Eta... Zertan diuk partida?*

GREG.—*Nik uste berdintsu gira... Azkenak behar ginituzke nihundik ahal badugu, gure alde bildu.*

AROT. (Joseri, hunek eskua untziaren gainean pausatu baitu).—*Hep... Esku hori ken untzi hortarik, plazer baduzu.*

KOSE.—*Zer zautzu zuri, nik untzi hau hunkitzen badut ere.*

AROT.—*Ba... Ez balitz lehenago horren hunkitzalerik izan, beharbada bertzela izanen ziren bozetako konduak.*

MERA.—*Zer habila?... Partida galdu eta, ta to faltsoketan? Ni nuk, oraino segurik, hemen nausi... Eta nik emaiten zioiat herriko muthilari untzi horren hunkitzeko dretxoā. (Josephek hunkitzen du).*

GREG.—*Horrek hunkitzen ahal badu, nik ere ba... (Lotzen dira biak untziari tiraka).*

MERA (Oihuz).—*Aski. Untzi hori bego hor... Beraz nehork ez dezala hunki.*

AROT.—*Ez dugu bertzerik galdatzen. (Kantopotik, berritz ere tuta eta oihu).*

JUSTINA (Sartzen da... burua galdua).—*Boza emaiterat heldu niz... Jaun erretorari emango diot... Zer egin behar dut hortakotz?...*

AROT. (Papera bat eskainiz).—*Hori, hau da jaun erretoraren aldeko papera.*

dedin, txuri ta gorri, guztioi eskatzen dizuet, kanpoan egon ditezela zalapartari guztiak.

PERRATZ. (*Aopetik Gregorio'ri*).—Zenbat dituk oraindik botua ematekoak?

GREG.—Bost... etortzen badira beintzat.

PERRATZ.—Eta partida zertan diagu?

GREG.—Berdintsu noski... Azkenak eskuratu bear genituzke, al-baldin bada.

PERRATZ. (*Jose'ri, onek eskua botu-ontziaren gañean ipiñi bait-du*).—Hep! Ken esku ori ontzi-gain ortatik, nai badezu.

JOSE.—Zer ajola zaizu zuri, nik ontzi au ukitzen badet ere?

PERRATZ.—Bai, bai! Izan ez balitz lenago noizpait ontzi orren ukitzallerik, bear bada beste modu batera izango ziran orain kon-tuak.

ALK.—Zer abil i? Partida galdu eta orain aitzaki-billa?... Ni nauk gero emen nagusi. Eta nik ematen zioat erriko mutillari ontzi ori ukitzeko eskubide. (*Uki beza Jose'k ontzia berriro*).

GREG.—Orrek ukitu balezake, baita nik ere. (*Eta asten dira biek ontziari tiraka*).

ALK. (*Oyuka*).—Geldi!! Bego ontzia or! Ez dezala ukitu iñork.

PERRATZ.—Ez degu besterik eskatzen guk. (*Kanpotik berriz ere turuta ta oyu*).

JUSTINA (*Sartzen da; burua galdua*).—Botua ematera nator. Jaun erretorari emango diot. Zer egin bear det ortarako?

PERRATZ. (*Paper bat eskaiñiaz*).—Tori; au da jaun erretoraren aldeko papera.

MERA.—*Hep, emeki, plazer baduzu... (Paper bat eskainiz).—Huna jaun erretoraren aldeko zinezko papera.*

AROT. (Kexu).—*Zuek, gorriak zirezte... Pittikaren hiltzalek, ez ahal zinukete petrentzionerik, jaun erretora zuen alde dela?*

MERA.—*Nik bazakiat jaun erretora norekin den... Zuen petrentzione guziengatik, aski kaskodun duk nor giren hemengotz kapableen ezagutzeko.*

AROT.—*Nori emango diozute boza, Justina, xuri edo gorrieri?*

JUSTINA.—*Xurieri, bixtan da.*

AROT.—*Orduan ez da dudarik: Hau da zure papera.*

MERA.—*Errazu, Justina, noren alde zira? Ezkila saria goratu nahi dutenen alde, edo hol hola utzi nahi dautzutenen alde?*

JUSTINA.—*Bixtan da, goratzearen alde nizala.*

MERA.—*Orduan, gure alde behar duzu bozkatu... Hori papera.*

JUST.—*Zer egin behar dut paper hauiekin?*

MERA.—*Hori paper xaku bat... Sar zaite koesainalean, eta hauta-azu zure eskualdea.*

JUST. (Sartzen da... Jendek ikusten dute zer egiten duen. Arras nahasia, lehenik paper xakuan ezartzen du paper bat, hura jali eta bertzea. Azkenean zainak airean, biak ezartzen ditu betan).—*Orai zer egin behar dut.*

MERA.—*Orai, jali zaite hortik.*

JUST. (Jalitzen da, eskuak hutsik).—*Orai, fini duta?*

ALK.—Hep! poliki-poliki, nai badezu. (*Paper bat eskeñiaz*) Ona jaun erretoraren benetako papera.

PERRATZ. (*Asarre*).—Zuek, gorriak zerate. Antxumearen iltzalleok, bai al-dezute lotsarik, jaun erretora zuen alde dezutela esateko?

ALK.—Nik ba'zekiat jaun erretora norekin dan. Zuen uste guztiak gora-beera, naiko burudun dek ura, errian nor gauza dan eta nor ez dan ezagutzeko.

PERRATZ.—Justina, nori emango diozu botua? Txuriei ala gorriai?

JUSTINA.—Jakiña, ba: txuriei.

PERRATZ.—Ez da dudarik orduan: au da zure papera.

ALK.—Aizu, Justina: noren alde zera? kanpai-jotze-saria geitu nai dizutenen alde, ala len bezela utzi nai dizutenen alde?

JUSTINA.—Jakiña ba: geitzen didatenen alde.

ALK.—Gure alde, orduan... Torizu papera.

JUSTINA.—Eta zer egin bear det bi paper oekin?

ALK.—Tori sobre bat... Sar zaite or, gelatxo ortan, eta aukeratu ezazu zerorrek nai dezuna.

JUSTINA (*Sartzen da. Zer egiten duan jendeak ikusten duala, zearo nahasia, sartzen du lendabizi sobrean paper bat, eta gero ura aterata, bestea... Azkenik zer egiten duan ez dakiala, sartu bitza biak bertan*).—Orain zer egin bear det?

ALK.—Orain atera zaitez ortik.

JUSTINA (*Ateratzen da, esku-utsik*).—Orain bukatu al-det?

MERA.—Nun duzu nik eman paper xakua?

JUST.—Hor, barnean.

MERA.—Bainan, emaztea, ez da paper xaku-hori utzi behar... Har azu zurekin?

JUST.—(Obedituz).—Behar duta hertsisi?

MERA.—Ez... Utz azu idekirik, eta ezar azu untzi huntan.

JUST.—Behar dituta barneko paperak erakutsi?

MERA.—Ez... Hol'hola sar azu hori untzi huntan.

JUST. (Obedituz).—Ba, ez bainakien nola egin: bi paperak barnean ezarri ditut... Ontsa egin ahal dut.

MERA.—Ontsa edo gaizki, egin duzuna, orai egina da.

JUST.—Bon, eta orai joaiten ahal niza?

GREG.—Ba, joaiten ahal zira eta lehen botikarioan erosten ahal ditutzu burtxoroen sendatzeko sendagailuak.

JUST.—Zer zaude? Burutik minez?

GREG.—Segur balitake biltzekoa hemen entzuten eta ikusten direnekin.

JUST.—Zuhaurrek nahi duzuenaz geroz. (Jalitzen da).

AROT. (Kexu).—Boz emaita hori ez da zuzena... Horrek xuri behar zuen bozkatu... Hasteko, ez da aizu bozen bilketan artzea, bozkatzeko salan... ezagutzen dut gero, nik ere legea.

MERA.—Ez zioiat nik bere boza galdatu. Bakarrik xehetasunak ziozkaiat eman. Bozez ihaur ni bezenbat mintzatu hiz.

ALK.—Nun dezu, nik emandako sobrea?

JUSTINA.—Or barruan.

ALK.—Bañan, emakumea, sobrea ez da or utzi bear. Artu ezazu zurekin.

JUSTINA (*Obedituaz*).—Itxi egin bear al-det?

ALK.—Ez; utzi ezazu idekirik, eta bota ezazu ontzi ontara.

JUSTINA.—Erakutsi bear al-ditut barruko paperak?

ALK.—Ez; bere ortan sar ezazu sobrea ontzi ontan.

JUSTINA (*Obedituaz*).—Bai; ez bait-nekian nola egin. Bi paperak ortxe dijoaz sobre-barruan. Ongi egin al-det?

ALK.—Ongi edo gaizki, egin dezuna orain egiña dago.

JUSTINA.—Tira ba; eta orain joango al-naiz?

GREG.—Bai, bai; joan zindezke, eta lenbait-len erosten al-dituzu botikarioarenean buru txoraa sendatzeko botikak.

JUSTINA.—Zer? buruko miñez al-zaude?

GREG.—Arritzeko al-litzake, emen entzuten eta ikusten diran gauzakin?

JUSTINA.—Zeurok nai ez dezute, ba? (*Irte-ten da*).

PERRATZ (*Asarre*).—Botu-emate ori ez da izan zuzena. Oren botuak txurientzat bear zuan izan. Lenengo-lenengo, ez da zillegi boto emateko salan bertan boto-biltzen aritzea. Nik ere ezagutzen det gero legea...

ALK.—Nik etzeoat botorik eskatu. Txeetasun batzuek eman besterik etzeoat egin. Boretuez ni ainbat mintzatu aiz i ere.

AROT.—Ez dira horiek ahantziak izanen... Eta jakin azue gorago dei eginen dudala.

MERA.—Ba, nik ere izanen diat zertaz dei egin... Nola bozetako papera markatuak dituzuen.

AROT.—Nork eman ditik paper markatuak?... Zuek edo guk?... Larreondoko Manzeri nork eman zio markatua?... Eta Gaztainondoko Mariari ere, nork?

MERA.—Ba eta Sasialdeko Katizari? Eta Gorostaiteko Andresi?... Nork eman ziotek?

AROT.—Gezurrak horiek guziak... Zer gitudzue?... Zuen heineko nahi?... Ez gituk, gu zuen iduriko saltseroak.

DOLOREZ (Sartzen da; bertzeak ixiltzen dira).—Boza emaiterat heldu niz.

MERA.—Hori paper xakua... Pako nun duzu?... Ez da oraino agertu boza emaiterat.

AROT.—Bere dretxoa ahal du... Nahi badu ez jin ere.

MERA.—Ez... Hori erraiten dautzut... Bere abantxila bailuke gerlako pentxionearen gatik, jin dadien boza emaiterat.

DOLO.—Ez eni galda, ene gizonaren berri... Ez du berdin, nik kontseilaturik boza emaiten.

AROT.—Pena da ez baitu hala egiten.

MERA.—Pena?... Zertako pena?... Hala baitezpada zuentzat eman behar dia Dolorezek bere boza?

AROT.—Dolorezek eta nik badakigu elgarren berri.

KOSE (Larriki).—Zer duzue?... Elgar kontsultatzeko usaia?

PERRATZ.—Gauza oyek ez dira aztuko. Eta jakin ezazute, gora ere joko dedala.

ALK.—Bai, bai; bañan nik ere izango diat zertaz gora jo... nola botu-papera markatuak eman dituzuten, alegia.

PERRATZ.—Nork eman ditula gero paper markatuak? Guk ala zuek? Larreondoko Manez'i nork eman dio markatua? Eta Gaztaiñondo'ko Mariari ere, nork?

ALK.—Bai, eta Sasialde'ko Katixa'ri? Eta Gorostarte'ko Andres'i? Nork eman zietek?

PERRATZ.—Gezurra; dana gezurra... Zer us-te dezute? Zuek bezelako gerala? Gu ez gaituk zuek bezin saltsero.

DOLOREX (*Sartzen da; besteak ixiltzen dira*).—Botua ematera nator.

ALK.—Tori sobrea... Nun da Pako? Oraindik ez da agertu boto-ematera.

PERRATZ.—Ba'du eskubide, nai badu ez etortzeko ere.

ALK.—Esan nai nuke, alegia, mesede lukeala botu-ematera etortzea, gerrako pentsioagatik-eta.

DOLO.—Ez galde neri nere gizonaren berri; berdin, ark ez du boturik ematen nik kontsejaturik.

PERRATZ.—Lastima da, ba, ala ez egitea...

ALK.—Lastima? Zergatik, gero, lastima? Agidanean zuentzat eman bear aldu Dolorex'ek bere botua?

PERRATZ.—Dolorex'ek eta nik ba'degu elkarren berri.

JOSE (*Azkar*).—Zer dezute? Elkar kontsultatzekeo oitura?

AROT.—*Ba, hire emaztearekin ikasia.*

KOSE (Samur).—*Zer duzu, zuk ere ene emazteaz erraiteko?*

AROT.—*Nik, deus ere, bertzek erraten ez dutenik. Bakarrik, hire emazteak baduela kontseilari bat hauta.*

KOSE.—*Ene emaztia utziko duzu beregisa.*

AROT.—*Segur eta hal'ere utziko dudala: hol'hola baitik aski gizonik. (Tuta batzu).*

MERA.—*Dolorez, zure paper xaku hori ezarazu untzian... Agian, hemengo kalapitek ez zituzte zintzoki boza ematetik gibelatu.*

DOLO.—*Zintzoki emango duenak, ez du sahetseko saltseri kasurik egiten... Agur jaunak...*

DENEK.—*Ba, agur Dolorez.*

MERA.—*Ixtantean, salaren hesteko tenorea... Ikusiko diuk noren izanen den azken hitza.*

AROT.—*Segur ikusiko dugula.*

BERTA (Sartuz).—*Zato, Ttote, zato. Boza eman behar dugu (Xixon ere agertzen da).—Boza emaiterat heldu gira biak.*

MERA.—*Ontsa da... Har azkitzue paper xakuak. (Xixoneri) Hor duka, paper xakuan ezartzeko nik eman papera?*

XIXON.—*Ba, ba (Paper bat jalitzen du sakela batetik, bertze bat bertzetik).*

MERA (Bat irakurtuz).—*Hau duk ona. Hau ezarriko duk paper xakuan.*

PERRATZ.—Bai, ire emaztearengandik ikasia.

JOSE (*Asarre*).—Zer dezu zuk ere, nere emaztearentzat esateko?

PERRATZ.—Nik? Ezer ere ez, bestek esaten ez duanik. Bakar-bakarrik orixe: ire emazteak ba'duala kontsejatzalle bat, ez nolanaiko.

JOSE.—Ia nere emazteari pakean uzten diozun!

PERRATZ.—Utzi-bearko! Bestela ere ba'zeukak ark gizonik asko.

(*Turuta-otsa*).

ALK.—Dolorex, utzi ezazu zure sobre ori ontzian. Agidanean, emengo ixkanbillak ez al-zaitu atzeratu botua zintzo ematetik.

DOLO.—Zintzo emango duanak, ez dio aldameneko saltsari kasurik egiten... Agur, jaunak.

GUZTIOK.—Agur, bai, Dolorex.

ALK.—Lalster dek oraintxe sala ixteko garaya... Ikusiko diagu norena izango dan azken-itza.

PERRATZ.—Alegia, ikusiko degula.

BERTA (*Sartuaz*).—Atoz, Ttotte, atoz. Botua eman bear degu. (*Xixon ere agertzen da*). Botu ematera gatoz biok.

ALK.—Ondo da. Toritzute sobreak... (*Xixon'i*) Or al-dek sobrean sartzeko nik eman dako papera?

XIXON.—Ba... ba... (*Ateratzen du paper bat poltxiko batetik, eta beste bat bestetik*).

ALK. (*Bat irakurriaz*).—Au dek ona. Au sartu bear dek sobrean.

AROT.—Ez duk hiri manatzea nori eman behar duen boza.

MERA.—Ez hut nik hi debekatzen, nahi baduk hire alaba gobernatu... Bainan ene semearen gidatzerat utz nezak ni... (Semeari) To papera. Hori ezar-ak paper xakuan.

AROT.—Koesinalean egiten den lana da, papera bere xakuan sartzea, eta ez kampoan.

MERA (Semeari).—Bon, beraz. Hail ixtagno bat zilo hortarat... Hortik jali eta, aski duk paper xaku hau, hol'hola untzi huntarat aurthikitzea.

AROT.—Ez duk hori libroki bozkatzea, bainan hik manatuz.

BERTA.—Zato, Ttotte, enekin koesinale barnerat. (Biak sartzen dira).

MERA (Kexu).—Ez da hori legea, bederazka sartu behar du koesinalean eta ez biranazka... Ttotte, haugi hunarat kamporat.

AROT.—Zer?... Beren dretxoa die nahi badie parezka boza eman.

MERA (Ttotte gibeletik tiratuz).—Ttotte, haugi hunarat.

BERTA (Eztiki).—Ez, ez. Ttotte, zaude hemen ene ondoan. Zato gaixoa.

XIXON (Aitari oldartuz).—Ni utz, utz ni, ni Bertarekin.

MERA (Arrunt kexu).—Ez diat holakorik onhartzen. Ez duk hori libertatea. Hori izpiritu ahulez baliatzea duk.

AROT.—Libertatea duka hik hire semeari manatzea, nori boza behar dion eman?

BERTA (Jaliz maltzurki).—Alo, alo... Ez ziz-

PERRATZ.—Ez dek ire egitekoa iñori agintzea, botua nori eman bear dion.

ALK.—Nik ez diat iri debekatzen, nai badek eure alaba gobernatzea; bañan utzi nazak nere semea gidatzen... (*Semeari*) To papera; sartzak sobrean.

PERRATZ.—Papera sobrean sartzea, ezkutuko gelan egiten dan lana dek, eta ez ola agirian.

ALK. (*Semeari*).—Ondo da. Sar adi pixka bat orrako xulo ortara. Eta ortik aterata naikoa dek sobre au olaxe ontzi ontan botatzea.

PERRATZ.—Ori ez dek botua libre ematea, ik aginduta baizik.

BERTA.—Atoz, Ttotte, nerekin ezkutuko gela-barrura.

(*Sartzen dira biok*).

ALK. (*Asarre*).—Ez da ori legea. Bakoizka sartu bear da gelatxoan, eta ez biñaka... Ttotte, atera adi onera, kanpora.

PERRATZ.—Zer...? Eskubide ditek, nai bade, binaka botua eman.

ALK. (*Ttotte'ri atzetik tira egiñaz*).—Ttotte, ator onera.

BERTA (*Goxo-goxo*).—Ez, ez, Ttotte; zaude emen, nere ondoan. Atoz gaxo ori.

XIXON (*Aitaren kontra*).—Neri utzi, utzi neri; ni Berta'rekin.

ALK. (*Zearo asarre*).—Ez diat ori onartzen. Ori ez dek libertatea. Ori, besteren argaleriaz ballatzea dek.

PERRATZ.—Eta libertatea al-dek, ik ire semeari agintzea botua nori eman bear dion?

BERTA (*Maltzurki atereaz*).—Tira, tira!

tela keza. Badakigu Ttottek eta nik, arras ontsa, nori boza eman. Ez dea hala Ttotte?

XIXON.—Ba naski.

MERA (Erhotua).—Ez zirezte nitaz trufatuko. Ez duk hori hola pasatuko. (Semeari eskutik kentzen dio bere papera eta ordaina emaiten). Hau, aditzen duka, hau ezarriko duk untzian eta ez bertzerik.

AROT. (Kexu, untziaren ziloa tapatuz).—Ez da hori libroki bozkatzea. Utz beregisa... Berak, koesionalean hautatu boza duk horrena eta ez hik eskutan ezarria.

MERA.—Zer?... Ez duela bozaren emaiteko dretxorik. Ikusiko diogu... Herriko muthila, bortxaz, manatzen dautzut bozetako untzi hori libra dezazun.

BERTA.—Aita, zaude deskantsuan... Utz-azu untzia libre. (Bertzeri) Nik ere ahal dut bozaren emaiteko dretxo.

MERA.—Ba, zuk ere. Bainan horrek ere.

BERTA.—Bon, nik ene papera untzian ezartzen dut.

MERA.—Ontsa da... Eta orai, hire aldi, Ttotte... Hemen ezar-ak eskuko paper ori.

BERTA (Irri ezti batekin, ezetz dio Xixon). Hunek ez daki zer egin).

MERA.—Mugi-adi ba... Hori ezar-ak hemen.

XIXON (Dudan egonik, naski obedituko du, bainan...)

BERTA (Oihuz).—Kasu, Ttotte, kasu, zinaurriak zinaurriak. Dena zinaurritz bethea da untzi hori. Ihesi ihesi hemendik?

XIXON (Orhoaz).—Ai, ei, ai... Zinaurriak, zi-

Etzaitezuela bildurtu. Ttottek eta nik ba'daki-
gu ondo asko, nori botu eman. Ez al-da ala,
Ttotte?

XIXON.—Bai, noski.

ALK. (*Erotua*).—Ez didazute neri burlarik
egingo! Ez dek ori ola pasako (*Kentzen dio
semeari eskutik papera, eta bestea ematen*).
Au, aditzen al-dek? Au botako dek ontzian,
eta ez besterik.

PERRATZ. (*Asarre, ontziaren zuloa estaliz*).—
Ez da ori botua libre ematea. Utzi bere gisa!
Berak gelatxuan aukeratutakoa dek orren bo-
tua, eta ez ik eskuetan ezarria.

ALK.—Zer? Ez duala botua emateko esku-
biderik? Ikusiko diagu... Erriko mutilla: nik
agintzen dizut; indarrean bada ere libra eza-
zula botuetako ontzi ori.

BERTA.—Aita, zaude geldi. Utzazu ontzia li-
bre. (*Bestean*) Al-det nik botu emateko esku-
bide?

ALK.—Bai. Bañan baita orrek ere.

BERTA.—Tira ba; orra nik ezarri nere pa-
pera ontzian.

ALK.—Ondo dago. Eta orain ire aldi, Ttotte.
Sartzak emen eskuko paper ori.

BERTA (*Irri ezti batekin ezetz dio Xixon'i...
Xixon'ek ez daki zer egin*).

ALK.—Mugi adi, ba. Sartzak emen.

XIXON (*Milla dudatan egon ondoren, obedi-
tuko luke noski, bañan...*)

BERTA (*Oyuka*).—Kontu, Ttotte, kontu! txin-
gurriak, txingurriak. Dana txingurriz betea
dago ontzi ori. Guazen, guazen emendik!

XIXON (*Orruka*).—Ei, ei, ei! Txingurriak,

naurriak? (Tira ala ihesi doha salatik Berta ondotik).

MERA.—*Ttotte, Ttotte. Deubru mentsa, haugi hunarat... Urde ustel zikinak ez duzue ez nitaz irri eginen. (Bere adixkideri) Zuek zauzte hemen erne... Jin araziko dut ba... Ha, zer uste dute?... Hortan geldituko dela afera. (Tira hala jalitzen da).*

AROT. (Irri maltzur batekin).—*Uste balinbadik gure Bertari nausitzea... Ez bide zakik norekin duen partida.*

KOSE.—*Zuen egitatea, ustelkeria bat da.*

OST. (Sartuz).—*Agur, jaunak. Boza emaiterat heldu niz tira hala, ostatua, ixtant bat, nehor gabe utzirik.*

KOSE.—*Hori, paper xakua.*

OST. (Boza emanaz behar den bezala).—*Jes, zer du merak holako lasterretan karrikan gaindi?*

AROT.—*Bere seme ernearen ondotik, dabila ihizian.*

OST.—*Berritz ere ihizi ixtorio? Baginuen ba aski hortarik egun hautan.*

AROT.—*Eta, ez dira oraino denak bururatuak... Sasoina ideki berri da gero bakarrik.*

OST.—*Orai baino saltsa hoberik eginen ahal dugu ihiziekin, ondoko egunetan.*

AROT.—*Agian ba, eta bipher gorri gutizagorekin... Harekin ez baita saltsa onarik.*

KOSE.—*Bipher gorri bixia hobe, tipul buruzuria baino.*

txingurriak!? (*Egiñalean igesi dioa Salatik, Berta ondotik duala*).

ALK.—Ttote! Ttote! Demonifio iñozua! Ator onera!... Urde ustel zikiñak! Ez dezute, ez, nere bizkarretik farrarik egingo. (*Bere lagunei*) Zaudete zuek emen erne. Ekarriera-ziko diat nik... Zer uste dute oyek? Gauza au ortan geldituko dala?... (*Egiñalean irteten da*).

PERRATZ. (*Irri maltzur batekin*).—Uste baldin badik gure Berta'rekin nai duana egingo duala, etzekik asko gizagajoak jokua norekin duan.

JOSE.—Ustelkeri bat da, zuek emen egin dezutena.

OST. (*Sartuaz*).—Agur, Jaunak. Botu ematera nator egiñalean, ostatua pixka batean iñor gabe utzirik.

JOSE.—Tori sobrea.

OST. (*Beaz bezela botua emanaz*).—Jes! Zer du alkateak kalean barrena olako korrikakin?

PERRATZ.—Bere seme azkarraren ondotik eizean dabil.

OST.—Eiza berriz ere? Izan degu ba len ere egun oetan ortatik aski.

PERRATZ.—Ez da, ba, oraindik dana bukatu. Eiza-sasoya ideki-berri degu oraindik.

OST.—Orain baño saltsa oberik egingo al-degu eizakoakin, ondorengo egunetan.

PERRATZ.—Agidanean bai, eta piper gorri gutxiagorekin; piper gorriarekin ez bait-da saltsa onik...

JOSE.—Piper gorri bixia obe, tipula-buru zuria baño.

OST. (Jaliz irriz).—*Bon, bon... Ekazue geia... Nik saltsatuko dautzuet denen gusturat.*

KOSE.—*Denen gusturat edo nehoren... Le-phoa joka nioie, boza ere, hitzemaiten duen saltsa bezalako bota duela.*

AROT.—*Estonatzeko duk ez baituk halere petrenitzen boza zuen alde eman duela.*

KOSE.—*Errex izanen da jakitea nori eman duen... Untzi barnean gaineko lehen papera horrena izanen baita... Eta azpiko lehen papera berritz jaun erretorarena... Hura baitzen goizean lehen boz emaile.*

AROT.—*Hola beraz, bozen emaileak zaintzen ditutzue... Eta zombaiti paperak markatu diozkatzuete?*

KOSE.—*Ofizio hori balinbadugu ere, ez dugu hortan zueri zorrik.*

PAKO (Sartuz, arras mozkorra, bi botoila, bat xuritik bertzea gorritik dauzka bi sakeletan... Kantuz ari da)

Xakurrak hau

Gatuak ñau, etc....

(Oihuz).—*Hep, etxe huntako jendeak... Gizon balios bat hemen duzuela, bere eginbidearen bethetzerat ethorria.*

AROT.—*Mugitzen ahal zare bozaren emaiterats... Laster tenorea izanen baita salaren hes-teko.*

PAKO.—*Zer duk hik, arotz muthur beltza, ni hola manatzeko. Nahi diatanari emanen diat ene boza, eta ez hik manatutik.*

AROT. (Samur).—*Heu.*

GREG. (Ahapaletik).—*Ezti zaite... Horren*

OST. (*Atereaz, parrez*).—Ondo da, ondo da. Zuek ekatzute gaya; nik saltsa egingo dizutet danon gustura.

JOSE.—Danon gustura, edo inoren ez... Le-poa jokatuko nuke, botua ere agindu digun saltsa bezelakoa bota duala orrek.

PERRATZ.—Arritzekoa dek, nola ez dekan uste botua zuen alde eman duala...

JOSE.—Errex izango litzake ba, nori eman dion jakitea. Ontzi-barruko gain-gañeko pape-ra da orrena. Eta azpi-azpikoa, berriz, jaun erretorarena... Ura bait-zan goizean lenengo boto-emalle.

PERRATZ.—Hola! Beraz boto-emalleak ere zaitzen dituzute? Eta paperak zenbaiti markatu dizkiozute?

JOSE.—Ofizio ori degu, bañan ortan ez di-zutegu zueri zorrik.

PAKO (*Sartuaz, zearo moskorra, bi poltxiko-tan bi botilla, bata txuritik, eta bestea gorri-tik; kantuan ari*).

Txakurrak au!

katuak ñau...

(*Oyuka*) Hep! Etxe ontako jendeak: gizon prestu bat emen dezutela, bere egin-bidea be-tetzera etorria.

PERRATZ.—Azkar ibiltzen al-zera ba orain-txe. Laister da ordu, sala ixteko.

PAKO.—Zer dek ik, perratzalle mutur beltz, neri ola agintzeko? Nai diotanari emango zioat nik nere botua, eta ez ik aginduagatik.

PERRATZ. (*Asarre*).—Heu!

GREG. (*Aopetik*).—Goxoago... Orren botua-

bozaren beharretan gare pasatzeko. Behar ginueke baitezpada bildu.

PAKO (Lurrean jartzen da eta bi botoilak bere aintzinean pausatzen ditu).—Hemen ene etxean nik, nor nahi bezenbat. Ene diruz egin baituk etxe hau, bertze nor nahirenaz bezenbat. Eta, ni, hemen, nehorek ez nezala mana.

M. P.—Arrazoina duzu, Pako... Eta, zuk bezala gerla egin duen gizona, barne huntan bere etxean da, bertze nehor baino gehiago.

PAKO.—Preseski... Zuri banda zikina zuek... Merian sartu baino lehen ere, hemen legea egingo duzueia? Hemen, mera bat ezagutzen diat. Eta, zuetarik nehork ez dik hemen nik baino gehiago dretxorik. Biba gorriak (gorritik edaten du).

GREG.—Ez zirea beldur, hola oihu eginez, ogia galduko duzula?

PAKO.—Ha. Zer nahi duk, hik ere, ene boza bildu? Eta, galtzen badiat ogia, hik zer afera duk? Ene ogiaren irabazteko on ahal nuk. Ez nuk, hire eyheran behin ere ogi eske ibili da-kianaz.

Ha, nun ditiat paperak? Huna xuriena, eta huna gorriena. Hauk gauza pollitak? Hauk badutela gero errespetu... Ni, bethi azken mementoan boza emaiterat jiten nuk... Hauk eskutan ditudano, alabainan, norbait nuk... Zeren-eta, aithor azue: Denek zuen baitan mespresatzen nauzue... Bainan denak ixilik zagozte, hunako paper pollit hau nahi duzuela kotz zuenganatu. Paper hau untzian ezarri ordutik, deus ez diat balioko zuentzat. Deus

ren bearrean gaude irabazteko. Ia gureganatzen degun.

PAKO (*Lurrean eseri, eta bi botillak aurrean dituala*).—Emen, nere etxean, ba-naiz ni, beste edozein ainbat. Nere diruaz egiña bait-dek etxe au, beste edozeiñenaz aña. Eta neri emen iñork ere ez dezaidala agindu.

J. PHIL.—Arrazoi dezu, Pako. Eta gañera zu bezela gerran ibilli dan gizona, barru ontan bere etxean da ta beste iñor baño gareago.

PAKO.—Ain xuxen... Txuri-banda zikiña, zuek! Alkatetzan sartu baño len ere agindu bear al dezute? Emen nik alkate bat ezagutzen diat. Eta zuetatik iñork ez dik emen nik baño eskubide geiagorik. Gora gorriak! (*Gorritik edaten du*).

GREG.—Ez al-zera, ola oyu egiñez, ogia galduko dezun bildur?

PAKO.—A...! Zer nai dek? Ik ere nere bo-tua ireganatu? Eta ogia galtzen badiat, iri zer ajola zaik? Nere ogia irabazteko gauza nauk. Ez nauk beintzat ire errotan bein ere ogi-eske mintzatu, dakidanez.

...Ah!... Eta paperak? Nun dizkiat paperak? Ona txuriena, eta ona gorriena. Bai gauza politak! Eta nolako errespetua dutela gero?... Ni beti, botu ematera azkeneko orduan etortzen nauk. Paper ok eskuetan ditudaño bai bait-naiz norbait. Izan ere, aitor ezazute: zuek guztiok zuen barruan nazka ta iguiña didazute; bañan guztiok ixillik zaudete, onako paper polit au zuenganatu nayeiz. Paper au ontzira bota ezkerro, nik ez diat balioko ezer zuentzat. Geiago ez nauk izango ezta zuen

gehiago zuen ostikoentzat ere ez nuk on izanen. Hortakotz ditiat paper hauk, ahal bezen luzaz eskuetan beiratzen... Hau, zuena zuriak... Eta, hau zuena, gorriak. Sofri hor. Biba gorriak. (Edaten du).

Ahatik, ez uste izan, zuek zuriak, baitezpada gorrieri emango dudala ene boza. Berdin zurieri eman dezakeat... To, nahi baduzue, ariko gaituk tratuan: Ean nork eskainiko dautan gehienik... Lehenik, zuek gorriak, mintza zaizte.

M. P.—Guk, Pako, gizon beharduna bethi errespetatzen eta laguntzen dugu... Zure pentxionea biltzeko, bahakizu zer hitzeman dautzugun.

PAKO.—Ez zira gaizki mintzo... Eta, zuek zuriak zer dautazue hitzemaiten?

GREG.—To, laguntzen bagituk pasatzen, ukanen duk herriko muthilgoa, Koserren orde.

PAKO.—Bai, hori gostuko lana nitek... Zuen tratua hobia diat besterena baino... Biba zuriak.

KOSE (Kexu).—Zuri ustelak. Beharrik zuen ametsa ez duzue bururatuko.

PAKO. Biba zuriak (Zuritik edaten du). Zuek, gorriak jo-azue inkanta... Gehienik eskaintzen duenak izanen dik ene boza... Orai, bahakizue zurien berri... jo hor inkanta.

MERA (Sartzen da, samur).—Muthiko trixtea.

M. P.—Ez duzia bildu?

MERA.—Ez, tira hala ihesi joan da oyhan alderat... Igorri dazkot ondotik xekariak.

atzeko-alderako ere. Orregatik gordetzen dizkiat paper oyek eskuetan al dedan bezain luze... Au zuena, txuriak; eta au zuena, gorriak. Sufri or! Gora gorriak! (*Edaten du*).

Alare, zuek zuriak, ez uste izan nai ta nai ez nere botua gorrientzat izango danik. Berdin izan diteke txurientzat... To! nai al-dezute tratuan asi gaitzen: ia nork eskeintzen duan geyena. Lendabizi zuek, gorriak, mintza zaitzte.

J. PHIL.—Guk, Pako, ba'dakizu: gizon bearstua beti errespetatzen degu eta laguntzen diogu. Zure pentsioari buruz, ba'dakizu zer itz eman dizugun.

PAKO.—Etzera gaizki mintzatu. Eta zuek, txuriak, zer agintzen didazute?

GREG.—To! lagundu eiguk, eta irabazten badegu, erriko mutil, aguazil egingo augu, Jose'ren lekuan.

PAKO.—Bai, ori gustuko lana nitek. Zuen tratua ohea diat beste oyena baño. Gora txuriak!

JOSE (*Asarre*).—Txuri ustelak! Zorionez, ez dezute zuen ametsa bururatuko.

PAKO.—Gora txuriak! (*Edaten du zuritik*). Zuek, gorriak, pujatu ezazute orain enkantea. Geyena eskeintzen duanak izango dik nere botua. Orain ba-dakizute txurien berri... puja or subasta.

ALK. (*Sartzen da asarre*).—Mutiko gizagajoa!

J. PHIL.—Ez al-dezute arkitu?

ALK.—Ez; egiñalean igesi joan da baso aldera. Bañan bidali ditut ondotik billatzalleak.

A. F.—*Laster behar luke jin, hesteko teno-
rea hurbil baita.*

PAKO.—*Biba zuriak... Nork du gehiago es-
kaintzen?*

MERA (Kexu).—*Zer ari zira hor lurrean?
Zer ditutzu molde horiek he?*

PAKO.—*Galde-ozute ingurukoeri ene berri.
Erranen dautzute nola inkanta ginuen, zu sar-
tzean. Biba zuriak.*

MERA.—*Plazer baduzu, xutituko zira hortik,
eta xutik egonen, toki hunen errespetuaz.*

PAKO.—*Jaun mera, manatuko duzu zure
etxean, nahi baduzu, bainan ez hemen. Hau
denen etxea da.*

MERA.—*Zeeer?*

M. P. (Ahhapetik merari).—*Othoi, eztiki har
azu... Boza emaitekoa baitu... (Pakori) Ba,
Pako, Jaun mera ontsa mintzo da. Ederrago
laitake, batere manatu gabe, xutitzen bazine.*

PAKO.—*Jaun merak mana dezola lehenik be-
re etxeko zozoari... Harek obedituko duelarik,
nik ere obedituko diot.*

MERA (Mr. Philippek ezin ezti du).—*Jakin-
ak herriko lehena ni naukala, eta errespetua
zor dautakala.*

PAKO.—*Ba, zu herriko lehena, eta zure
erne hura herriko azkena (Irriz).*

MERA (Errabian).—*Errak berritz holako-
rik... Nahi duka beharri-ondoko bat?*

PAKO.—*Biba zuriak... (Irriz) Holakorik nork
ikusi du behin ere.*

AROT.—*Errazu, Pako, erna zaite boza emai-
tekotz.*

J. PHIL.—Ibiltzen al dira laister, ixteko garaya eldu bait-da.

PAKO.—Gora txuriak! Nork eskeintzen du geyago?

ALK. (*Asarre*).—Zer ari zera or, lurrean? Ori al-da giza-egoera? eh!...

PAKO.—Galde ezaiezu nere berri ingurukoai. Ayek esango dizute; enkantean ari giñan zu sartzean. Gora txuriak!

ALK.—Nai badezu, txutitu zaite ortik, eta txutik egon, toki onen errespetuagatik.

PAKO.—Alkate jauna! Zure etxean aginduko dezu, nai badezu; emen ez. Au danon etxea da.

ALK.—Zeeer?

J. PHIL. (*Aopetik alkateari*).—Arren, mintza zakizkio goxo. Botua emateko dago. (*Pako'ri*) Bai, Pako, alkate jaunak arrazoi du: ederra-go litzake, batere agindu gabe zerori txutituko baziña.

PAKO.—Alkate jaunak lendabizi agindu de-zayola bere etxeko zozoari. Ark obeditzean, nik ere obedituko diot.

ALK. (*Jaun Philipe'k ezin gozatu du*).—Aizak: ba'dakik errian aurren-aurrena ni naitzela, eta errespetu zor didakela.

PAKO.—Bai, bai: zu erriko aurrena; eta zure beste ura, erriko azkena. (*Farrez*).

ALK. (*Errabi bizian*).—Esazak berriz olakorik... Nai al-dek belarrondoko bat?

PAKO.—Gora txuriak! Nork ikusi du olakorik iñoiz ere?

PERRATZ.—Aizu, Pako: zabilta azkar botu ematera.

PAKO (Bethi irriz).—*Ihizirat joan, eta armarik gabe etxerat. Eta, gainerat larru gorrian.*

AROT. (Kexu).—*Errazu, Pako, tenora duzula... Mugi zaite hunarat bozkatzerat.*

PAKO (Kexu).—*Zuk ere zer duzu, ni hola manatzeko?*

AROT.—*Zure onetan ari naiz, gizona, ez zaitela samur.*

PAKO.—*Nardagarri ere bazait azkenean, hola eskalari buru ezin eginez artzea.*

AROT. (Kexu).—*Nor da eskalea?... Zu edo ni?*

PAKO.—*Zu ba bethi hala zira, bat ederra, ni ez naiz behin ere zuen etxean galdezka ibili. Eta zu hemen zabilta ene ondotik, boza eske gatu zaharra gnau-ka ibiltzen den bezala (Orenak entzuten dira).*

M. P.—*Xo, hep, xo, lau, bortz, sei, sei orenak. Ale, sala hets. Fini da orai bozkatzeko tenorea.*

AROT.—*Heu... (Izigarri samur, Pakori lephotik lotuz) Nor duk eskailea, hemen, urde mozkor nahasi zikina.*

PAKO.—*Ai, ai, ai... Bozak fini, fini Pako.*

MERA (Pakori ostikoka).—*Kanporat mozkor tzar usaindua, kanporat hemendik. Herriko muthila ezar azu kanpoan gizon hau.*

PAKO (Kanpotik).—*Ez nian bertze beldurrik? Ustel banda zikinak zuek.*

MERA.—*Bon, orai planta gaiten bozen kondatzeko. (Athetarik, tuta, jats eta oihi.) Kanpokoak daudela kanpoan. Hemen bagira hol hola aski mundu.*

PAKO (*Beti farrez*).—Eizara joan, eta arma-rik gabe etxera. Eta gañera larru-gorrian.

PERRATZ. (*Aserre*).—Aizu, Pako: ordua de- zula. Zabiltza azkar, botu ematera.

PAKO (*Aserre*).—Zer dezu? Zu ere neri agin- tzen?

PERRATZ.—Zure onagatik ari naiz, gizona; etzaitezela asarretu.

PAKO.—Nazkatu ere egin naiz azkenerako, eskaleakin ezin buruturik ari-bearrez.

PERRATZ. (*Aserre*).—Nor da emen eskale? ni, ala zu?

PAKO.—Zu beintzat ba'zera bat ederra. Ni ez naiz bein ere zuen etxean eskean ibilli; zu, ordea, emen zabiltza nere ondotik boto-eske ta boto-eske, katu zaharra *miau*-ka ibilli oi dan bezela. (*Orduak entzuten dira*).

J. PHIL.—Ixo!... Hep!... ixo!... lau, bost, sei... Seirak... Alde! itxi sala. Bukatu da orain- txe botu emateko ordua.

PERRATZ.—Heu!! (*Izugarri aserre, Pako'ri lepotik elduaz*) Nor dek emen eskalea? Urde, moskor, nahasi, zikiña i?

PAKO.—Ai, ai, ai!... Botuak bukatu, Pako bukatu.

ALK. (*Pako'ri ostikoka*).—Alde! mozkor-tzar usaindua! Alde emendik! Aguazil: eramazu emendik kanpora gizon au.

PAKO (*Kanpotik*).—Ez nian beste bildu- rrik... Ustel-banda zikiñak zuek!

ALK.—Tira! Orain asi gaitezen botuak kon- tatzen. (*Ateetatik entzun bedi turuta-otsa, za- laparta eta oyu*). Kanpokoak daudela kan- poan; barruan ba'gera naikoak.

ZURIAK (Kanpotik).—*Huuu, fuera gorriak... Gorriak kanporat.*

GORRIAK (Berdin).

AROT. (Zurieri).—*Utz gaitzazue othoi lehenik paperen kondatzerat.*

MERA (Gorrieri).—*Zueri ere, gauza bera dauzuet galdatzen. (Bozak kondatuz) Lehen papera.*

GREG. (Ahapetik Arotzari).—*Ostalertsarena.*

MERA.—*Hau nehorendako ez da, bi listak barnean baititu.*

GREG. (Ahapetik).—*Atso ustela.*

MERA.—*Hau gure... hau ere... hau ere... (Segitzen du).*

GORRIAK (Kantatuz pilotan bezala).—*Bortz eta baterez. (Kantatuz "nor gira gu" airean).*

*Nor da nausi, nor da buru
Gu gorriak, gu gorriak
Nor da nausi, nor da buru
Gorriak nausi gira gu huuuuu.*

ZURIEK (Kantatuz).—*Hemezortzi eta hamabortz. Zuriek hemezortzi eta gorriek hamabortz. Kantatuz*

*Nor da nausi, nor da buru
Gu zuriak, etc....*

(Kantu denboran, mera eta arotza kalapitan lotzen dira papera baten gainetik... denak ixiltzen dira).

MERA.—*Paper hau ez da bali... markatua baita... So egizue zerbaitekin karrakatua du xoko hau. (Zuriek: huu).*

TXURIAK (*Kanpotik*).—Huuuu! Behera gorriak! Kanpora gorriak!

GORRIAK (*Berdin*).

PERRATZ. (*Txuriai*).—Utzi iguzute, mesedez, lendabizi paperak kontatzen.

ALK. (*Gorriai*).—Zueri ere gauza bera eskatzen dizutet. (*Botuak kontatuaz*) Lendabiziko papera.

GREG. (*Aopetik Perratzalleari*).—Ostalariarena.

ALK.—Au ez da inorentzako; bi lixtak dakartzi...

GREG. (*Aopetik*).—Atso ustela!

ALK.—Au gurea... au ere bai... baita au ere... (*Segitzen du*.)

GORRIAK (*Kantari pelotan bezela*).—Sakeak bost, erretoak esperantza! (*Gero "Nor gera gu"-ren airean:*)

Nor da nausi? nor da buru?

Gu gorriak, gu gorriak.

Nor da nausi? nor da buru?

Gorriak nausi gera gu. Huuuu!

TXURIAK (*Kantari*).—Emezortzi eta amabost. Txuriak emezortzi eta gorriak amabost! (*Gero kantari len bezela*)

Nor da nausi? nor da buru?

Gu txuriak...

(*Kantu-denboran alkatea eta perratzallea ixkanbillan asten dira papera baten gañetik. Denak ixiltzen dira*).

ALK.—Paper au ez da bale... markatua dago... begira elozu... zerbaitekin arraskatua du baxtar au. (*Txuriak, Huuuu!*).

AROT.—*Zer, ez dela bali... karraka hori berenazkoa du, eta ez norbaitek egina. (Gorriek: huuu).*

MERA.—*Bon, beraz... Eginen dugu paso... Zonbana gira Mr. Philippe.*

M. P.—*Hogoi ados.*

GORRIAK (Finitzean).—*Fuera zuriak. Nor da nausi eh?*

ZURIEK (Berdin).

MERA.—*Xo, ixilik... Hogoi eta laura berdin gare... papera bat gelditzen da bakarrik.*

KOSE (Gora).—*Ba, jaun erretorarena, lehen zolakoa harena baitzen.*

GREG. (Harrotua).—*Hobe, hobe, beraz biba zuriak. Zuriak nausi.*

ZURIAK.—*Biba zuriak... Fuera gorriak...*

MERA.—*Emeki, emeki, ikus eta mintza... ez lehenago.*

GREG.—*Zer ikus-ta? Ikusten ahalduzu ba.*

MERA (Denak ixilik daudela eskuak daldaran, emeki idekitzen du paper xakua, eta handik jalitzen ditu bi paper, bi lixtak).—*Hau ez da nehorentzat.*

GREG. (Errabian).—*Aphez ustela. Beraz saldu gaitik.*

GORRIEK.—*Huuuu.*

ZURIEK.—*Huuuu.*

MERA.—*Xo ixilik... Beraz hogoi eta laura berdin gira... Bozak berritz haste, heldu den igandean.*

AROT.—*Ha... Nausituko zinez-tela... Ez zarezte ahatik egin...*

MERA.—*Ez zuek ere.*

GORRIEK.—*Huuu.*

FERRATZ.—Zer? ez dala *bale*? Marka ori berezkoa du paperak; ez da inork egiña. (*Gorriak, Huuuu!*).

ALK.—Tira, tira. “Paso” egingo degu. Zebana gera, jaun Phelipe?

J. PHIL.—Ogeiña, berdin.

GORRIAK. Nor da nausi? nor da buru... (*Bukatzean:*) Behera txuriak!!

TXURIAK (*Berdin, kantu bera*).— ...Behera gorriak!!

ALK.—Ixo, ixillik! Ogeitalauna berdin gera orain arte. Paper bat gelditzen da bakarrik.

JOSE (*Oyuz*).—Ba... Erretor jaunarena: azpi-azpikoa...

GREG. (*Arro-arro*).—Obe, obe; beraz, gora txuriak! txuriak nagusi...

TXURIAK.—Gora txuriak! Behera gorriak!

ALK.—Poliki, poliki. Ikusi-ta mintza; ez le-nago.

GREG.—Zer ikusi, gero? Ori ikusia zegok.

ALK. (*Denak ixillik daudela, eskuak dal-dal, poliki-poliki idekitzen du sobrea... eta bi paper, bi listak*).—Au ez da inorentzat.

GREG.—Apaiz ustela! Saldu egin gatzik!

GORRIAK.—Huuuu!

TXURIAK.—Huuuu!

ALK.—Ixo, ixillik! Beraz, ogeitalauna, berdin gera. Botuak berriz egin bear, datorren Igandean...

FERRATZ.—Ah! Nagusituko ziñatela, bañan etzerate nagusitu.

ALK.—Ez zuek ere.

GORRIAK.—Huuuu!

ZURIEK.—*Huuu.*

XIXON (Pusatzen dute barnerat; zozotua dago).

MERA (Izigarri kexu).—*Nundik agertzen hiz hunarat... Bainan nundik agertzen hiza?*

XIXON.—*Boza... boza eman...*

MERA.—*Hau duka tenorea bozkatzerat jiteko? Nun hintzan orai artio, trixtea.* (Beharri ondoko bat eskaintzen dio) *Hi gatik, ez gaituk pasatu.*

ZURI *eta* GORRI (Denak oihuz ari dira... Salla orok husten dute).

XIXON (Bakarrik. Kara trixte batekin, eskuz mahain gaineko bozetako paperak nahas mahastekatzen ditu emeki... Bet-betan irri zozo batekin).—*Nik ere ba paperak.* (Sakelatik jalitzen ditu bi lixtak). *Hau aitak emana... Hau Bertak.* (Aphur bat ixilik lixteri beha dago Bertarenari potta emaiten dio.) *Gizonak samur... Ba, paperak.* (Espaldez egiten du: Ez duela konprenitzen. Bet betan irri zozo batekin, kopeta erhi batez zilatzuz emeki). *Zonbat jende xoro den mundu huntan.*

OYHALA

ZOKOA 1956

P. LARZABAL.

TXURIAK.—Huuuu!

XIXON (*Bultzaka sartzen dute, dena zozotua*).

ALK. (*Izugarri aserre*).—Nundik agertzen aiz onera? Bañan nundik agertzen aiz?

XIXON.—Botua, botua eman...

ALK.—Au al-dek botua ematera etortzeko ordua? Nun ibilli aiz orain arte, gizagajo ori? (*Belar-ondoko bat eskeintzen dio*) Iगतik ez gaituk nagusi.

TXURI eta GORRI (*Guztiok oyu batean... Salla ustuta, kanpora dijoaz*).

XIXON (*Bera bakarrik. Aurpegia illun, eskuz mai-gañeko boto-paperak nahas-nahaskatzen ditu poliki-poliki. Alako batean, irri zozo bat ezpañetan:*) Nik ere ba paperak. (*Poltxikotik bi lirtak etereaz*) Au, aitak emana... Au, Berta'k.

(*Pizka batean lirtai begira ixillik dago... Berta'renari musu ematen dio*). Gizonak aserre... ba, paperak.

(*Sorbaldak jasoaz, ez konprenditzen, alegia... Alako batean, irri zozo batekin, beartzez bekoki-ondoa zulatuaz:*) Zenbat jende txoro dan mundu ontan...

OYALA

Zokoa - 1956

P. LARZABAL

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1.—*R. Artola*

SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso
asko. (Aitua)

2.—*M. Soroa*

GABON, ¡AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU

3.—*P. Apalategui, S. J.*

EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.

4.—*Pepe Artola*

USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso
asko.

5.—*P. M. Urruzuno*

EUSKALERRITIK ZERURA ta beste ipui ba-
tzuk.

6.—*Toribio Alzaga Anabitarte*

RAMUNTXO

7.—*Ramos Azkarate*

GALTZAUNDI ta beste bertso asko.

8.—*Antero Apaolaza*

PATXIKO TXERREN. (Nobela).

9.—*Bitoriano Iraola Aristiguieta*

OROITZAK ta beste ipui asko.

10.—*Bertsolariak*

ERREGE EGUNEKO BERTSO-SAYOA (1962)

11.—*Piarres Larzabal*

BORDAXURI

12.—*Bilintx*

BERTSO TA LAN GUZIAK

13.—*Mariano Izeta*

DIRUA GALGARRI

14.—*Piarres Larzabal*

IRU ZIREN

- 15.—*Bertsolariak*
EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK -I-
- 16.—*Alfonso M.^a Zabala*
GABON GAU BAT eta beste ipui asko.
- 17.—*Antonio M. Labayen*
MALENTXO, ALARGUN!
- 18-19.—*Antonio Zavala, S. I.*
TXIRRITA (Bizitza ta bat-bateko bertsoak.
- 20.—*Franzisko Goñi, S. I.*
LURDES-KO GERTAERAK
- 21.—*P. Larzabal*
HERRIKO BOZAK EDO NOR ALKATE

